

DATORRENA

Deskolonizatzeko zain, europar bozak Kanakyn **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

DARDARAK: Katalina Belauntzakoak eta Maritxu Oiartzungoak elkar maitatu zuten duela 500 urte **> 12**

2024ko ekainaren 8a | XVIII. urtea • 879. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ARRAIN TXIKI BAT BEREA EZ DEN URMAELEAN

ARRAIN GORRI TXIKIAK EDOTA DORTOKA SINPATIKOAK. ETXEKO ANIMALIA EXOTIKO HORIEK KALTEGABEAK DIRUDITE, BAINA URMAELETAN TRISKANTZA HANDIAK ERAGITEN DITUZTE, BERTAKO EKOSISTEMA HANKAZ GORA JARRIZ. **> 12** Idoia GIBELALDE



Faroetako greba: uharteak gelditu, langileen soldatak igo arte 04

Palestinaren istorioak eskolara iritsi dira UNRWaren eskutik 07

«Dardarak», duela 500 urte elkar maitatu zuten Katalina eta Maritxuren istorioa 12

Arrain txiki bat berea ez den urmalean 16

Orioko hitzak eta esamoldeak bildu eta hedatzeko erronkari heldu dio Aritz Pardinak 22

Elkarrizketa: Maitane Martinez Eguiluz, Txiotesia7 lehiaketako irabazlea 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Deskolonizatzeko zain, europar bozak Kanakyn
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Beti konektatuta, beti eskuragarri, beti multiataza moduan
- 11 **Iñaki Altuna:** Euskal Herria, babes eta garapen leku
- 19 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Tetris
- 19 **Miren Azkarate Badiola:** Janariarekin ez da jolastu behar
- 20 **Luixa Reizabal Arruabarrena:** Emantzipatzerik ez izatearen ondorio psikologikoak
- 21 **Xabier Izaga:** Nori gustatzen zaio Europako ereduak?
- 26 **Amaia Ballesteros**
- 30 **Nagore Barrena Oruechebarria:** Adimen artifiziala, desmitifikazioa



{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Deskolonizatzeko zain, europar bozak Kanakyn

La Tontouta aireportuan ozta-ozta hasi dira hegazkinen joan-jinak. Iragan maiatzaren 14an frantziar Asanblea Nazionalak hauteseroldari buruz harturiko aldebakarreko erabakiak piztu zuen krisi larriaren ondotik Kaledonia Berria airetik isolatu zuen Metropoliak. Geroztik, frantziar poliziak, militarrek eta goi funtzionarioak lurreratzea bermatzeko baizik ez dute baliatu aerodromoa.

Astebete lehenago, Tik Tok sarea berriz ere martxan eman zuen Parisek. Txinak, Errusiak, Iranek eta, oro har, "Gaizkiaren Ardatzean" kokaturiko edozein herrialdek zentsura ezarri gero, ozen entzuten zen salaketa. Aldiz, Europar Batasuneko herrialde batek erabilitako zentsurak ez du harrabotsik sortu.

Emmanuel Macronek ez du, ordea, urraturik ez zen bidea zapaldu. Egiari zor, azkenaldian hoztasuna agertu badu ere Ursula von der Leyen Europako Batzordeko buruarekin –besteak beste, eskuin-muturrarekin gehiengoak osatzeko zabalduko atea dela-eta–, Eliseoko maizterrak bere egin du Parisek Bruselako exekutiboan kokaturiko peoiak eginiko xake mugimendua. Thierry Breton frantses komisarioari zor zaiolako Europar Batasunak Txinaren eraginari aurre egiteko azken hilabeteetan altxatu duen lege-horma. Digital Services Act (DSA), Digital Markets Act (DMA) edota Adimen Artifizialari buruz Bruselak idatzitako AI Act delakoaren sustatzaileetarikoa izan da Barne Merkatu eta Zerbitzuen europar komisarioa.

Lehenengo, legediari errepara diezaiogun. 2023ko agorriaren geroztik indarrean sartu zen araudiari buruz azalpen zehatzak eman zituen Bretonek. EBren araudiak atea zabaldu zuen plataformen aurkako neurriak hartzeko, betiere «haien edukiek gorrotoa bultzatzen dutenean edo matxinadaren aldeko deiak za-

baltzen laguntzen dutenean». Parisek begi onez ikusi zuen Macronek berak aste batzuk lehenago egindako galderari erantzun zion lege hura. Zer testuingurutan? Nahel M. gaztea poliziak jaurtitako tiroaz hil zenean, Nanterren, protesta olatua altxatu zen Paris inguruko auzotan, baita Hexagonoko beste hiri handietan ere. Macronek istiluak astintzeko mezuak barreiatzeko ardura egotzi zien sare sozialei eta Tik Tok bezalako plataformetan «eduki politikoak kontrolatzeko» neurri berriak aldarrikatu zituen.

Kanakyn muturrera eraman du zentsura, bihar, ekainaren 9an, haren parlamentua berritzeko botoa emango duen Europar Batasuneko estatu esanguratsu batek. Tik Tok itzaltzeko botoia baliatu du, zuzenean, Parisek. Bere argudioa izan da uhartedia blokeat-

Edukien gaineko kontrola iragarri zuen EBk. Kanakyn gauzaturiko Tik Token ilunaldiak agerian utzi du sareetako edukia baino gehiago mezularia jomugan jartzea zela benetako asmoa

tzeko ekintzak sare hori baliatuz antolatu zirela. Izan ere, berdin aire zein uhin eremuan "out" agindua emanaz, ez zuen gehiago xerkatzen Parisek, larrialdi egoeraren babespean, Estatuak eta loialisten miliziak martxan emandako bortizkeria ofiziala ezkutatzeko?

Europako kazetariak ohartarazi zuten estatuek beren jarduera mugatzeko baliabideak Bruselan bultzaturiko lege harresia; demokraziaren izenean, tresneria berria autoritarismoari haizea emateko baliatuko zutela. Arrazoi osoz. Begira, bestela, Kanakya: bakea eta deskolonizazioa lanjerean jarri ondoren, metropoli kolonialak boto-ontziak emanen dituzte, bihar, uhartedian, europar bozen kariatara. •

LAU SINDIKATU NAGUSIEN BLOKEOA

Faroetako greba: uharteak geldirik, langileen soldatak igo arte

📁 JENDARTEA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Maiatzaren 14az geroztik, Faroe Uharteetako sektore estrategikoak greban daude. Herrialdeko lau sindikatu nagusiek bultzatu dute protesta eta eskaera garbia da: langileen soldatak igotzea. Pandemiak eta Ukrainako gerrak gogor astindu dute langileen eroste-ahalmena eta herrialdeak planto orokorra egin du.

Faroe Uharteetan turismo-sasoi batean sartzeaz dira. Ez dute turista-uholderik izaten, ezin da konparatu gertuen dituzten Eskoziak edo Islandiak jasotzen duten bisitari-kopuruekin. Baina neguan egunean bizpahiru hegaldi izatetik dozena bat izatera igarotzen da Sorvagur-eko aireportua. Danimarkatik datozenak ugari dira, baina Reykjavik, Edinburgo, Paris edo, aurten, Londrestik ere badatoz. Iaz New Yorketik ere izan zituzten hegaldiak. Horrekin batera, Bartzelona, Mallorca eta Kanarietara ere zuzen joan daitezke faroetarrak udan.

Aurten, baina, kezka da nagusi. Faroetako lau sindikatu nagusiek grebara deitu zuten maiatzaren 14an, enpresariak soldatak behar beste igotzeko ganorazko proposamenik ez zeukatela eta. «Proposamena hain dago urrun gure gutxieneko eskaeratik, ezen berehala erabaki baitugu ezetz esatea. Gure kideek behar bezalako soldata-igoera merezi dute». Hala, azken hiruzpalau asteotan herrialdeko sektore estrategikoetako asko gerarazi dituzte: arrantza-faktoriak eta prozesatzeko lantegiak, erakuntza eta garbiketara, autobus-gidariak, garbitzaileak eta zabor-biltzaileak, portuko langileak eta beste hainbat behar-

gin, 5.000 guztira, greban daude. Zenbait sektoretan salbuespenak egin dituzte, zaintzan edo herritarrek irletan mugitzeko erabiltzen duten ferryan, baina ez zama garraiatzekoetan.

Iritsi aurreko egunetan irakurri ditugunak aireportuko *duty-free* dendan bertan nabari dira: ez da alkoholik falta, baina beste produktu batzuen apalak huts-hutsik daude. Era berean, alokatuta geneukan autoaren erreserba bertan behera utzi behar izan dugu: uharteotako gasolindegia ia erregairik gabe daude, premiazko zerbitzuentzat baino ez dago eta. Anbulantziak, ospitaleetako langileak, suhiltzaileak, polizia, eta kito. Herritarrek elkar ikusi eta «bizpahiru egunerako gasolina daukat, eta zuk?» galdetzen diote elkarri. «Ez dakit astea amaitzerik izango dudana».

SOLDATA-IGOERA ESKE

Maiatzaren 14an hasitako greba da Faroetako egoeraren erantzulea. Herrialdeko lau sindikatuk deitu dute, patronalak soldata-igoerak onartuz, eta bosgarrena bat egitekoa da. Azken urteotako eroste-ahalmenaren murrizketa –pandemiatik hona, inflazioak eta Ukrainako gerrak bultzatuta– irauli nahi dute, eta horretarako, ehuneko zortziko igoera eskatu dute aurten, eta beste horrenbeste,

datorren urterako. Patronalak, ezetz.

Danimarkaren subiranotasunpean dagoen baina ia erabateko burujabetza daukan Ipar Atlantikoko nazioa aspaldi bisitatu nahi genuen, independentziarako urratsak nola zihozten jakiteko, eta bide batez hizkuntza txiki baina osasuntsuari eusteko errezetak ikasteko (50.000 lagun pasatxo bizi dira Faroetan). Erabateko blokeo-egoera horretan, alabaina, ezer egiterik ote genuen galdetu genion uharteetan geneukan kontaktuari, Uni Leitisstein kazetariari. Euskal Herrian eta Katalunian bisitan izan zen, Kataluniako prozesuaren testuinguruan, eta sarritan gonbidatu gaitu Faroek ezagutzera.

IRLAK HUTSIK

Egoera horretan bidaiatzea merezi ote zuen galdetu ge-

nion faroetar kazetariari. Nola mugitu autorik alokairuan hartu ezinik eta garraio publiko ere ez dabilen leku batean? Eskolak ere itxi dituzte, alajaina. Bera dugu salbatzailea: irrati nazionalan dihardu, eta auto elektrikoak dauka. «Uharteotarako aukera bikaina da, baina oraindik ere jendeak pentsaera kontserbadora du askotan; badakizu, Ameriketara bezala, auto handiak nahi dituzte».

Gauerako hartutako ostatuan bezero bakarra naiz. Aldameneko aterpetxean ere bi lagun baino ez daude. Islandiako aireportuan eskala egingakoan jendetza ikusi dugu, urteotan turismoak itzel egin baitu gora, gaurik gabeko egunetara hurbiltzerakoan batez ere. Faroetan, berriz, errepi-deak ia hutsik daude. Oso noizean behin gurutzatzen dugu autoren bat. Torshavn hiribu-

Behean, aireportuko «duty-free» dendaren egoera. Dagoeneko apal asko hutsik daude. URRUTIKOETXEA





ruko supermerkatuan erosketak egiteko geldialdia egin dugu: lauzpabost auto baino ez daude herrialdeko erosketagune handiengan. Barruan, ondo hornitua dirudi saltokiak, greba etor zitekeela aurreikusita. «Aurreko aste pare batez ohi baino gehiago enkargatu genuen, baina noski, hor ere badago mugarik», esan zion Niels Mortensen SMS erosketaguneko arduradunak KVF telebistari. Barazki eta fruten gunera iritsitakoan, huts-hutsik daude apalak. Ezer ez da iritsi azken hiru asteotan. Jatetxeetan ere, menuetan ñabardura: ez da falta bildotsa edo izokina, uharteotan nahi beste dute batetik eta bestetik, baina horiek laguntzeko barazkirik ez dago. Patatarik ere ez.

Badago egoera horretan harriarri egiten zaigun zerbait: herritarren patxada. Eskolak itxita, garraio publikorik ez, bestela ere mundutik urrun dagoen herrialde honetan txangorik ia ezin egin, baina

lasaitasun moduko bat nabaridatu. Bai, behintzat, Europako beste edozein txokotako antzeko egoera batekin alderatuta: ez dago istilu aipagarriarik, inork ez du oihurik egiten eta herritarrek ez dute aparteko haserrerik adierazten. «Ez da erraza, baina grebalariekin bat nator. Azkenean langile guztioi egingo digu onura, gainera», dio afaritan ezagutu dugun herritar batek. Oraindik greban ez dauden beste sektore batzuetako sindikatuak ere bat egitea aztertzen ari dira,

Ez da gertatu istilu aipagarriarik eta herritarrek ez dute aparteko haserrerik adierazten. «Ez da erraza, baina grebalariekin bat nator. Azkenean langile guztioi egingo digu onura, gainera»

«Espero dut greba konpontzea, baina Eskandinaviako tradizioan, gobernuak ez du esku hartzen negoziatioetan», azaldu du Faroeetako lehen ministroak

Sektore estrategikoak geldirik daude eta herrialdea, blokeo-egoeran. URRUTIKOETXEA

haiek ere laster soldatak negoziatu beharko baitituzte.

HERRITARREN LASAITASUNA

Kalean patxada da nagusi, gehienek ahotan beste gairik ez duten arren. Dena oso era baketsuan doa itxuraz, baina edozein grebak indar posizio bat adierazten du. Hegoaldeko Suduroy uhartearen besteetatik bereizi samar eta urrunago dago, faroerak ere bere aldaera berezia dauka, eta itsasontziz edo helikopteroz iritsi behar da. Kontua da isolatuago egoteak zenbait produkturen hornidura bermatzea ekarri duela, gainerako uharteetan horiek agortu diren bitartean. Uharte nagusietan diesela amaitu zenean, Suduroyn oraindik geratzen zela-eta, autobus-konpainia batek dozena erdi ibilgailu bidali zuen, ferryan bi orduko bidea egin da. Hara iritsitakoan, grebalariek blokeatu egin zituzten, ordea, eta egun bat eman behar izan zuten bertan, negoziatu

eta itzultzen utzi zieten arte. Besterik ezin eta jendeak elkartzeko eta kuxkuxeatzeko tartea ere hartzen du: bolo-bolo dabilen anekdota batek dio herritar batek plastikozko poltsetan jasotako gasolina ekarri nahi izan zuela ezkutuan Suduroytik. Berehala harrapatu zioten estraperloko merkantzia, eta erregai arriskutsu batekin ontziratu nahi izan zuela gogorarazi zioten.

Ez omen da bakarra izan, ferryen konpainiak segurtasun-oharra atera behar izan baitu su-arriskuaz ohartarazten, eta onartu gabeko edukiontzietan erregaia daramala harrapatzen dutena poliziaren esku utziko dutela adierazi dute. Era berean, «zazpi metro baino luzeagoak diren ibilgailuek greban ari diren buruzagitzaren baimen berezia beharko dute», nabarmendu dute. Hau da, grebalariei ofizialki aitortzen zaie blokeoan neurriak hartzeko autoritatea.

Torshavn hiriburuan, Aksel V. Johannesen lehen ministroak berak egin digu harrera Faroeetako gobernuaren egoitzan. Mundu guztia bezala, kezkatuta dago grebarekin. Egunotan, lagunak eta senideak hara eta hona eramaten ibiltzen da: berak ere auto elektrikoa dauka. Auto ofiziala den galdetu diogu eta ezetz, gobernuan ez daukatela halakorik; bere auto propioarekin ibiltzen da atzera eta aurrera. «Arineketan ere bizkor egingo luke», egin dio txantxa Uni Leitessteinek, lehen ministroa 100 metroetako txapelduna izan baitzen atletismoan. Gero futbolearen aritu zen, Faroeetan baita Danimarkako Ligan ere. Egun ere futbolzale amorratua eta Liverpoolen jarraitzailea da. Athletic-ek Espainiako Errege Kopa irabazi

izana gogorarazi digu. Kirola eta kultura (musika emanaldiak ez dira bertan behera utzi), eguneroko buruko minak gozatzeko bide gisa. Musika emanaldi ugari dituzte asteburuetan, eta kulturgileak ere ez daude egoeratik kanpo: Joanis Nielsen idazle ospetsuena grebalariekin batera ari da blokeoetan parte hartzen.

«Espero dut greba konponetzea, baina Eskandinaviako tradizioan, gobernuak ez du esku hartzen negoziatioetan», azaldu du Faroetako lehen ministroak. Gatazka blokeatuz gero, bitartekariaren figura dago. Horren beldur da, neurri batean, lehen ministroa: ez atzera ez aurrera egon eta, momenturen batean, bitartekariak egindako proposamena inposatu beharra. Sozialdemokrata da, eta harreman ona izan nahi du sindikatuekin. Langileen sindikatuekin bat egitea posible dela gogorazi diogu: «Tira, bitartekariak proposatu lezake sindikatuek eskatzen dutenetik gertu da-

Grebalariek, protestan. Herrialdea erabat geldirik egon arren, patxada da nagusi eta herritar gehienek bat egiten dute grebalariekin. URRUTIKOETXEA

goen zerbait ere, ezta?». Eta aldartea aldatu zaio, «orduak, bai, berehala ezarriko nuke hori», dio irribarretsu.

BLOKEOAREN KALTEAK

Terji Sigurosson bitartekariak Faroetako telebistan esandakoaren arabera, langile eta enpresariaren arteko desberdintasuna zabalegia da une honetan negoziatuz izateko. Faroetako Enpresariaren Elkarteak eskaintakoari gutxiegi iritzi diote sindikatuek. «Langileen eskaerak ez dira negoziagarriak, guztiz arrazoizkoak dira», esan dute beharginen ordezkariak. «Azken bi urteotan inflazioa ehuneko 12an egon da, eta horren aurreko bi negoziatioetan, 2020an eta 2022an, lehendabizi covid a eta gero Ukrainako gerra aitzakia bezala erabili zituzten soldatarik ez igotzeko. Faroetar langileen soldata gaur egun ez da aski bizitzaren kostuari eusteko», salatu dute sindikatuek adierazpen bateratu batean. «Azken asteotan

ikusitako gure langileek zer nolako rol garrantzitsua jokatzen duten gure gizartearen. Konpainiek greban salbuespenak egiteko esaten digute, baina horren ordean enpresariaren elkartera jo beharko lukete bizi ahal izateko moduko soldata-igoera eskatzera».

Herritarrek eguneroko sufritzen dute blokeoaren egoera, baina kanpoko eraginean daukate askok kezka: turismo-sasoaren hasiera izanik, nola eragingo duen, bai berehalakoan bidaia bertan behera utz dezaketengatik, bai etorkizunerako herrialdearen irudiarekin lotuta. «Atzerritik Faroetara datozen turistak enpresari eta langileen arteko etxe barruko gatazka batean bahitzeak oso mezu txarra bidaltzen die bisitariari eta ikargarriko kaltea eragin dezake», dio auto-alokairuko konpainiek ateratako ohar bateratuak. Hala ere, lehentasunak argi dituzte, baita turismo-sektorean ere. Hala, Faroeko Uhartetako turismo-bulegoak bisitariarentzako oharra zabaldu du: «Langileen grebak, ziur aski, zuen planei eragingo die. Ulertzen dugu, ziur aski, aspaldi zeundetela bidaia honen zain, eta ez zenutela egoera hau espero. Baina ez kezkatu. Greba eta guzti, bada, Faroeko Uhartetaz zelan gozatu». Oinez eta bizikletaz egiteko txangoak eta zabalik dauden museoak, galeriak eta saltokiak aipatzen ditu, baita grebaren eraginik ez duten beste esperientzia ugari ere. Eta ez dute ahazten, opor-planak zertxobait zapuztuko zaizkien turistak aintzat hartuta ere, bazterrean utzi ezin diren printzipioak daudela. «Garrantzi handia ematen diogu sindikatuaren langileen greba-erabak bermatzen duen

gizarte batean bizitzeari», dio Faroeko Uhartetako turismo-bulegoaren oharrak.

Etxekoak dira garrantzitsuenak, eguneroko uhartetotan bizi diren pertsonak, eta bisitariak, gero. Eta horrek bisitari guztientzat balio du, lehen ministroak etsipen puntu batez dioenez: datorren asteeko agendan ageri zaion gauzarik garrantzitsuenak Danimarkako Frederik X.a erregeak Faroetara egiteko duen (zuen) bisita da, eta hari egin beharreko harrera. Urtarrilean Margrethe II.a erreginak abdikatu eta semea tronura igo zenetik ez da Faroeko Uhartetara etorri oraindik. Datorren astean behar zuen errege-bidaia ofizialak, baina hori ere bertan behera utzi beste erremediorik ez dutela aitortu du Johannesenek.

Faroetako bizimodua hankaz gora jarri du grebak, kalte ekonomikoak handiak dira eta jendea nekatuta dago. Baina gehienek ulertzen dute gertatzen ari dena, eta bat datoz langileekin. Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia, izan ere. Asteon bertan gogora ekarri dute greba hau antolatzearen aurrekari nagusia: duela 21 urte, 2003an, 12.000 lagun joan ziren lanuztera, uhartetako bost biztanletik bat, langileen herena. Bost aste iraun zuen greba hark hornidurarik gabe utzi zituen uharteak, eta pertsona jaitsi behar izan zuten enpresa eta zerbitzu askok, ikastetxeak tartean, kaleetan inork bildu gabeko zaborra pilatzen zen bitartean. Herrialdea hilabete baino gehiagoz gerarazi zuten, baina azkenean ehuneko hamabiko soldata-igoera lortu zuten. Aurretik konpondu ezean, datorren astean beteko du hilabetea greba honek.



PALESTINARREN ISTORIOAK ESKOLARA IRITSI DIRA

Nerea GOTI

Beddawin-en, Tripoliko iparraldean UNRWak duen kanpalekuan, emakume palestinar batek bere istorioa kontatu du. Bere gurasoak Palestinako Haifan bizi ziren 1948an, eta handik Kuwaitera ihes egin behar izan zuten. 1990eko hamarkadan, gure narratzailearen ume garaian, gerraren ondorioz, herrialde hura ere utzi behar izan zuen familiak. «Hainbat leku-tatik igaro ondoren, Beddawin-en amaitu genuen», esan dio emakumeak Rowari, emakumeei laguntza emateaz arduratzen den UNRWako kideari. Gehiago kontatu du. Oso gazte ezkondu, 12 urtez tratu txarrak jaso zituzten senarrarengandik alabak eta berak. Familiarengandik ez zuen laguntzarik izan. Etxean, pazientzia izateko esaten zioten, barkatzeko, adiskidetzeko..., 'gizonak horrelakoak dira' mantra historikoaren izenean. «Indarkeria-zurrunbilo» horretatik aterata, senar ohiak ez dio alabaren mantenu-pentsiorik ematen. Lana behar du ekonomikoki autonomia izateko. Izena ezezaguneko emakume horrek idazkari-ikasketak ditu, ondo hitz egiten du ingelesez, eta hala ere, laguntza behar du. Libanon dago, eta hango legeria «oso murriztailea» da Palestinako errefuxiatuentzat: «Errefuxiatuak izateagatik ez digute uzten hainbat lanbidetan aritzen», azaldu du.


Egiazko lekukotza komiki formatuan kontatua dago. «Ahlam. Bizitza batekin amestuz» du izenburu, eta Susana Martin eta Cristina Bueno ilustratzaileek Palestinako errefuxiatuen laguntzarako Nazio Batuen Erakundearen UNRWA agentziaren EAEko ordezkariarentzat egindako lana da. Kontakizun hori, beste emakume palestinar batzuenekin batera, hausnarketarako material gisa erabili da EAEko ikastetxeetan, DBHn eta Batxilergoan, baita unibertsitateetan ere. Doan eskuragarri dago UNRWA Euskadiren webgunean. Gasteizen egin berri den Heziketa Topaketara heldu da ikasgeletan lantzeko sortutako material hori.

Lakuako Hezkuntza Sailak eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak antolatutako foro horrek «bakerako hezkuntza» izan du aztergai, eta galdera bat bota du abiapuntu gisa: «Nola sustatu

dezakegu bakearen kultura gure hezkuntza-guneetan?». Espazio zabal horretan, bertoko zenbait ekarpen bildu zituen hitzorduak memoria, bizikidetzeta eta giza eskubideen inguruan: Gogora Institutuak, Gernika Gogoratzuz elkarrekin, Bizikasi proiektuak, zapalduen antzerkiaren ereduak edota Otxandioko eskolak landutako esperientziak ezagutzeko..

Ikasgeletan lantzeko prestatutako materiala Palestinaren historia gogortzen duen sarrera batekin abiatzen da. Mobilizazio jendetsuak ekarri ditu gurean Palestinan eragindako sarraskiak, ezagutza handia dago Palestinako auziaz, elkartasun sentimendu indartsua eragiten duena, baina noraino ezagutzen dira pertsonak pairatzen dituzten egoerak eta beraiek dituzten eskubi-





Alboko orrialdean, Macarena Arrieta UNRWA Euskadiko kidea, Gasteizen egin berri den Heziketa Topaketan. Lerro hauen ondoan, UNRWA Euskadik kasgeletan lantzeko sortutako komikia. Raul BOGAJO | FOKU- UNRWA Euskadi

deak? Jakin beharreko datu asko gal-tzen dira bidean, eta zuzenak ez diren pertzepzio ugari pilatzen dira. Horren aurreko antidotoa informazioa da, ikasgeletara egokitua, eta irakasleen inplikazioa behar duena, Gasteizko topaketan agertutako gogoeten arabera.

«EZ DAKIGU ZER ESKUBIDE DITUZTEN»

UNRWA Euskadik bultzatutako azterlan batek Ekialde Hurbileko eta, zehazki, Palestinako errefuxiatuei buruz euskal jendarteak zituen pertzepzioak aztertu zituen. Urte asko ez dituen azterlan horrek erakutsi zuen, adibidez, arazoak daudela errefuxiatua izatea zer den identifikatzeko, ez dagoela haien eskubideei buruzko kontzientziarik eta haien estatus juridikoak ezezagun izaten jarraitzen duela.

«Entzuna dugu errefuxiatuen gaia, baina ez dakigu, zehazki, nortzuk diren eta zer eskubide dituzten», azaldu zuen Macarena Arrietak, UNRWA Euskadiko ordezkariak. Azterlanak ikusi zuen, gainera, nahiko begirada eurozentrikoa dugula, Europa harrera-gune

Azken edizio honetan bakerako hezkuntzaren eraikuntzara hurbildu den Heziketa Topaketak UNRWA Euskadiren egitasmoa aztertu du, baina ez da Euskal Herriko mugetatik kanpora begirako esperientzia bakarra izan

Hegoa Institutuko Gloria Guzmanek nazioartean ezaguna den giza eskubideen beste urraketa bat jarri zuen mahai gainean, Mendebaldeko Saharakoa, eta dokumentatutako indarkerien inguruko lana aurkeztu zuen

nagusia dela pentsatzeko joera oso zabaldua dagoela, eta hala ere, uste horietatik oso urrun dagoela errealitatea: Palestinako errefuxiatuak Palestinako lurralde okupatuan bizi dira –Zisjordanian eta Gazako zerrendan–, Libanon, Sirian eta Jordanian, zehaztu zuen. Horrelako datuetan oinarritzen dira eskola-mundura estereotipoekin amaitzeko asmoz eramandako materialak.

Azterlan horrekin jarraituz, aipatu zuen Arrietak, palestinarren kausak euskal herritarren interesa eta sinpatia pizten dituen arren, begirada lagunkoi hori ez dela gero jokabide eta laguntza ekintza zehatzetan islatzen. Begirada androzentrikoa ere bada euskal gizartearena, errefuxiatuei gizon aurpegia jarri ohi diena, emakumeak ikusezin bihurtuz. Errefuxiatuekiko jokabide irekiagoa dauka gazteriak, baina gizartean, oro har, hamarretik bat errefuxiatuak hartzearen kontra dago, eta mesfidantza maila altuagoa da arabiar jatorriko edo herrialde arabiarretatik etorritako pertsonen kasuan. Nahiko orokorra den beste pertzepzio bat ere agertu zuen: mundu arabiarra eta musulmana kolektibo homogeneousat hartu ohi ditugu gurean, eta horrek pisu handia du elkarreragin sozialean.

EZJAKINTASUNA GARAITZEKO METODOLOGIAK

Errefuxiatu palestinarrak hartzen dituzten bost gunetan laguntza humanitaria ematen duen UNRWAn garrantzi handia dute hemen garatzen diren gizarte-eraldaketarako hezkuntza proiektuek, nabarmendu zuen Macarena Arrietak. Izan ere, uste okerrak eta aurreiritziak ezabatzerako bideratutako egitasmoak dira, baina informazio hori ezin da edonola kontatu. Bizitzak kontatzeko eta kontakizun horiek mila kilometrotara transmititzeko tresna aurkitu dute komikia bezalako baliabideen bidez, «gai konplexuak direlako» informazioa emateko orduan, batez ere gazteen aurrean. Azaldu zenez, hezteko, informatzeko... oso garrantzitsua da komunikatzen jakitea.

Komikiarekin oso harrera ona aurkitu dute ikasgeletan, tailer formatuan zein hitzaldi gisa, baina oraindik ezja-

kintasan handia dago, azaldu zion Arrietak GAUR8ri. Ikasgelan aurkitu daitezkeen harridura aurpegiak datu orokorrekin hasten dira, «gogorazten dugunean ia sei milioi errefuxiatu palestinar daudela 48ko gerratearen ondorioz –orduan sortu zen Israel–; 700.000 lagunek baino gehiagok ihes egin behar izan zutela, eta errefuxiatu estatusa gurasoengandik jasotzen dela; edota azaltzen dugunean Libanon dauden emakume askok, nahiz eta palestinar errefuxiatuak izan, ez dutela Palestina ezagutzen».

Iruditeria kolektiboan instalatuta dauden uste batzuekin apurto eta begiradak zabaltzeko saio horietan, ikasle gehienek ezagutzen ez dituzten datu asko daude, eta horien artean, adibide gisa aipatu zuen palestinar asko bi aldiz direla errefuxiatu, beste herrialde batera ihes egin eta bertan ere gerra aurkitu zutelako. Informazio hori guztia hezkuntza komunitatera eramateko formatu berritzaileak bilatzen ditu UNRWak, batez ere Palestinakoa bezalako egoera kronifikatueta. Ba-

da, bestalde, kezkatzen duen beste fenomeno bat: polarizazioa. Macarena Arrietaren ustez, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da bakearen aldeko heziketan lan egitea. «Gero eta iritzi-polarizazio handiagoa ikusten ari gara, baita gorroto diskurtsoak ere», zehaztu zuen topaketan.

ELKARTASUNA, ESKUBIDEETAN OINARRITUTA

Beste mezu bat utzi zuen NBEn agentziaren ordezkariak. Nabarmendu zenez, elkartasunaz hitz egiten dugunean giza eskubideetan oinarritutako elkartasuna hauspotu behar da eta

Komikian jasotako kontakizunen bidez egoera humanitarioa ezagutarazi, estereotipoak apurto eta mugak gainditzearen inguruko erresilientzia-istorioak transmititu nahi izan ditu UNRWak

Formatu berritzaileek gazteengana heltzeko gaitasun berezia dute, baina funtsezkoa da «ondo komunikatzea», baita irakasleen prestakuntza ere, giza eskubideei buruzko tailerren noizbehinkako izaerarekin bukatzeko

Irudian, Hegoa Institutuko Gloria Guzman, Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean egindako lanaren aurkezpenean, Heziketa Topaketan parte hartu zuten hizlarien ondoan.

Raul BOGAJO | FOKU

erruki-begiradarekin hautsi. UNRWaren materialaren azterketak aparteko tailer bat izan zuen topaketan, metodologia testatzeko moduko saio bat eragileen artean –hezkuntza-mundukoak eta GKEetako ordezkariak–.

Lehen ekarpen bat sortu zen parte hartzaileen artean. Emakume errefuxiatu palestinarrei buruzko komiki bilduma horren sarreran dagoen informazioan jarri zuen fokua parte hartzaile batek. Esan zuenez, oso sakona eta luzea suertatzen da ikasleekin lantzeko. Beste gogoeta batzuk sortu ziren parte hartzaileen artean. Aipatu zen, bakerako heztea erronka bada, giza eskubideen lanketatik hasi beharko dela hori egiten. Giza eskubideez hitz egiten da, zehaztu zuenez, horien inguruko guztia jakintzat emanez, baina agian transmisio zehatzagoa beharko luke gaiak, lege multzo horiek eta lotutako testuinguruak azalduz.

Ez dira gai errazak, eta edozein kasutan irakasleen motibazioaren garrantzia nabarmendu zuten, baina bide horretan, profesionalen prestakuntza eta behar dituzten erraztasunak eskaintzea aipatu ziren gako gisa. Horrelako proiektuak ezin dira, halaber, oso noizean behin jorratu; hain zuzen, horrelako ikaskuntzek jarraipena izan beharko luketela ere nabarmendu zuten topaketan.

Profesionalen arteko testatze horretan, ikastaldea bera nolakoa den azterteak garrantzia duela azaldu zuten; beste kultura batzuetatik etorritako ikasleak dauden kontuan hartuz, adibidez. Edozein kasutan, UNRWA Euskadik aukeratutako metodologiak hainbat gai lantzeko balio duela nabarmendu zuten. Palestinako emakume errefuxiatuen errealitatera hurbiltzeko ariketa horrek aukera eskaintzen du emakumeek jasaten dituzten indarkeriez hitz egiteko, eta, aldi berean, abiapuntu izan daiteke inguruko beste errefuxiatu batzuen egoera ezagutzeko. Beste errealitate batzuetara heltzeko esperientzian, fikzio modura kontatutako istorio horiek Amets Arzallus eta Ibrahim Balderen “Miñan” ekarri dute gogora.





Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Beti konektatuta, beti eskuragarri, beti multiataza moduan

Telefonoa komunera ere eramaten baduzu, antsietatea sentitzen baduzu bateriarik gabe geratzeagatik edo ordu batzuk deskonektatuta pasatzeagatik, eta ezin baduzu saihestu zure sareak berrikustea, lagunekin edo senideekin denbora partekatzen duzunean ere, agian adikzio-maila bat garatu duzu.

Sare sozialen bidez, ia berehala lor ditzakegu errefortzuak. Dopamina dosi azkarra, baina eraginkorra. Plazer labur oro bezala, maiz errepikatu behar da ase sentitzeko, benetan arazoa den zerbait. Sare sozialetan, presio ikusezina jasan behar dugu, eduki berria eta interesgarria izan dadin. Horrekin batera, atsegin izateko dugun motibazioari esker, ez dugu gure alderik aspergarriena erakutsi nahi. Horrela, alde batetik, gustuko izan nahi dugun alegiazko publikoa dugu, eta bestetik, fabrikatua izan behar duen errealtatea.

Aurrez aurreko kontaktua behar da estresa arintzen duten eta zorionsuago, osasuntsuago eta positiboago sentiarazten zaituzten hormonak sortzeko. Gaur egungo topaketetan oso ohikoa izaten da aurrean ditugunei begietara begiratzeari utzi eta mugikorriari begira egotea, azken jakinarazpenari kasu eginez. Etenaldiak etengabeak dira denbora partekatuetan, eta entzute aktiboa praktikatzeari uzten diogu. Sare sozialen neurrigabeko erabilerak lagunekin eta maiteekin "mundu errealean" ematen dugun denboraren kantitatea eta kalitatea murriztea ekar dezake. Gure inguruko pertsonekin elkarrekin beharrean, gure pantailetan murgilduta egon gaitzke, benetako konexiorako eta laguntza emozionalerako aukera baliotsuak galduta.

Sare sozialen bitartez itxurakerietan galtzen gara, erdizkako egia eta inpresio behartuetan, harremanari kalitatea kenduta. Azkenean ez dugu elkar ezagutzen, elkar ikusten ez dugulako, gure lagunen aurpegia irakurtzen ez dakigulako, haien benetako sentimendua ezagutzen ez dugulako. Komunikazioa zintzoa izan arren, beti osatugabea izango da. Pixkanaka, gure egunerokota-

sunean sartzen ditugu komunikazio-ohitura horiek, eta, ondorioz, gero eta modu desitxuratuagoan hautematen dugu geure burua.

Ironikoa da urrun daudenekin konektatzen gaituenak hurbilekoengandik urruntzea, gure burutik hasita. Gure sareetan gertatzen denarekin bat ez etortzeko beldurrak eta gure bizitza beste batzuenarekin alderatzeko joerak ezkortasun kutsu bat uzten digute askotan.

Beraz, plataforma horien eragina onartzea funtsezkoa da ongizate emozionala babesteko. Sare sozialekiko ikuspegi kontziente eta orekatu bat hartzean, ongizate emozional handiagoa sustatu dezakegu, eta bizitza beteagoa eta gogobetegarriagoa bizi. Aukera bat da zure interesekin eta gustuekin lotutako edukia partekatzen duten kontuak jarraitzea, baina ebaluatu benetan ongizatea baino gehiago ondoeza eragiten ote dizuten. Gogoratu pantailen atzean, zuk bezala, bizitza eta emozio propioak dituzten pertsonak daudela. Denak ez du errealtatea islatzen; beraz, funtsezkoa da ikuspegi kritikoari eustea eta horretaz jabetzea. Zure ongizate emozionala lehentasun bat da, eta sare sozialen erabilera osasungarriari buruzko erabakiak hartzeak alde handia eragin dezake zure egunerokotasunean sentitzen zaren moduan. •

saioaaginako@gmail.com



Sareen eragina onartzea funtsezkoa da ongizate emozionala babesteko. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Euskal Herria, babes eta garapen leku

Europako hauteskundeetara –baita Estatu mailakoetara ere– herri gisa aurkeztearen alde hitz egin du aste honetan Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak. Horietan kolaboratu behar dela dio, eta lehia hurbilago diren hauteskundeetarako utzi. Ez da ideia berri-berria. 2003an plazaratu zuen halako zerbait ezker abertzaleak, “Bergarako proposamena” izenburuarekin. Garaia ez zen bera, ezta gutxiagorik ere, eta horregatik Otegiren hitzok, berri-berriak ez izanagatik, berritzaile ere gertatu dira beste batzuen azken asteetako mezu politikoen ondoan, batez ere EAJk oso jarrera oldarkorra duelako azkenaldian. Erretxinduta dabil aspaldi. Nonbait, erosoago zegoen beste garai batzuetan.

Alderdien arteko ika-mikez harago, Arnaldo Otegiaren adierazpenok eta adierazpenok egindako momentuak (Europako hauteskundearen atarian, hain zuzen) beste gogoeta batzuk piztu eta indartu beharko lituzkete. Izan ere, bihar Euskal Herrian –batez ere, Hego Euskal Herrian– islatuko den herri gogoak ez duelako zerikusirik izango hauteskunde barrutiko emaitzekin. Estatu espainoleko barrutian PPK irabaz dezake eta VOXek indar esanguratsua izango du. Beharbada, beste hautagaitza ultraeskuindar batek ere ordezkartza lor dezake. Euskal Herrian, berriz, horiek ez dute halako emaitzarik lortuko, ezta hurrik eman ere.

INPOSIZIOAREN AJEAK

Euskal Herriak ez du soilik bere ahotsa mugatua edo ukatua, bere ahotsaren kontrako beste muturreko posizio politikoak inposatu ohi zaizkio. NATOren erreferendum hura izan zen adibide ezin argiagoa. Igan-dean, munduaren aurrean, euskal herritarren iritzia

urtua agertuko da berriro, oso bestelako gehiengo batzuetan disolbatua.

Euskal Herria ardatz beharko luke nazioaren, langileen eta herri sektoreen emantzipazioa helburu duen edozein estrategiak.

Alde batetik, biziraupen hutsagatik, Euskal Herriaren nortasuna, kultura eta hizkuntza ezingo baitira bestela segurtasun osoz bermatu. Aurreko belaunaldiek gure herria frankismoaren eta Frantziako jakobinismoaren putz ilunetik atera bazuten ere, premiak eta egoera larriak ez dira desagertu, ezta gutxiagorik ere. Euskararen inguruan larritasuna piztu da berriro ere, eta datozen bi hamarkadak erabakigarriak izan daitezkeela diote adituek. Broma gutxi, beraz.

Beste alde batetik, gurean hamarkada hauetan baldintza egokiak loratu direnez, bertan halako estrategia emantzipatzaile bat garatzeko aukera egon bada-

Euskal Herriak ez du soilik bere ahotsa mugatua edo ukatua, bere ahotsaren kontrako beste muturreko posizio politikoak inposatu ohi zaizkio

goelako, estatuaren eta boteretsuen aurrean indar harreman egokiak sortuz eta epe labur zein luzeko helburuak erdietsiz. Hasitako ibilbidean barrena egiteko erronka historikoa du oraintxe herri honek.

Eta horrek ez die munduan barrena askatasunaren alde eta zapalkuntzen kontra garatu beharreko borrokei kalte txikiena ere egingo; justu kontrakoa baizik, internazionalismoaren eskutik. Paradoxatzen joa daiteke ere, internazionalismoa ez da inoiz nazio askapen prozesuen zabalkundearen garaian bezain indartsua izan. Euskal abertzaletasunaren kontrako mezua pozoi erreazionario besterik ez da. •

DARDARAK ARTXIBOAN

Katalina eta Maritxu, duela 500 urte elkar maitatu zuten bi emakume

1 503ko uztailaren 21ean, Valladolideko Kantzilertzak eta Gorteko alkateek bi emakumeren kontrako epaiaren berri eman zuten. Akusatuak: Maritxu Oiartzungoa eta Katalina Belauntzako. Leporatzen zieten delitua: elkarrekin 'haragizko harremanak' eduki izana. Epaitegietako artxiboetan, epaien eta zigoren zirrikietan, maiz suma daitezke garai-gizartearen argiak eta ilunak. Nor eta zergatik zigortzen duten jakiteak jendarte baten berri zehatza ematen du.

Katalinaren eta Maritxuren kontrako epaia Donostian hasi zen, bertako alkate Miguel de Ochoa Olazabalen aginduz. Epaiak jasotzen duenez, herri-tar batek eman zion abisu alkateari: Katalina Belauntzako eta Maritxu Oiartzungoa ikusi omen zituen «gizon batek emakume batekin soilik egin zitzakeen haragizko ekintzak egiten». Garaiko gaztelera jasota dagoen deklarazioak

HISTORIA / Amagoia MUJKA TELLERIA

Katalina Belauntzako duela 478 urte hil zen Tolosan, 1546ko ekainaren 4an. Epaitegietako artxiboetan topa daiteke bere berri, gogor epaitu zutelako Maritxu Oiartzungoarekin «haragizko harremanak» zituela leporatuta. Hari mutur horretatik tiraka sortu dute «Dardarak» album ilustratua eta erakusketa.

dioenez, «...gizon eta emakume bezala erabiltzen zuten elkar; bata bestearen gainean biluzik jarrita, elkar ukituz, musukatuz, sabel biluzien gainean zamalkatuz... gizon batek emakume batekin bakarrik egin behar dituen haragizko ekintzak egiten zituzten».

Donostiako alkateak Belauntzako Katalina atxilotzeko agindua eman zuen. Gogor torturatu omen zuten, haren burua errudun jo zezan, baina Katalinak errugabea zela esaten jarraitu zuen, «emakume ondradua eta fama onekoa» zela. Froga sendorik ez zuen

arren, alkateak Katalina errudun jo, jabetza guztiak konfiskatu eta erbesteratu egin zuen. Alkatearen arabera, leporatzen zitzaion delitua oso larria zen eta bi emakumeen arteko harremanak 'fama publikoa' zuen; alegia, haien arteko sexu harremanak Donostia osoan ezagunak ziren. Hori nahiko jotzen zuen alkateak Katalina gogor zigortzeko. Alkateak zigor hori 'eredugarri' izatea nahi zuen, inork ez zezan antzekorik egiteko tentaziorik izan. Azkenerako, beraz, Katalina erbestera kondenatu zuten, auziaren gastuak ordainarazi zizkieten eta haren ondasunak kendu. Katalinak agindutakoa bete ez eta inoiz Donostia zapaltzen bazuen berriro, plazan soka batetik buruz behera zintzilikatuko zuten, bertan hil arte.

Katalinak bere epaiaren kontrako apelazioa aurkeztu zuen Valladolideko Kantzilertza Auzitegian, errugabe jo zezatela eta bere fama ona eta ohorea itzul ziezaioleta eskatuz. Gaztelako Auzitegi Gorenak errugabe deklaratu zuen, frogarik ez zegelako eta akusazioak lekuko barkarra aurkeztu zuelako. Hartara, Katalinari leporatzen zitzaion «fama publikoko delituak» ez zeukan funtsik, Donostiako bizilagunen artean ez baitzen ezaguna leporatzen zitzaion delitua. Valladolideko epaitegiak

absolbitu egin zuen emakumea eta Donostiako alkatea Katalinari «fama oso-oso» bueltatze- ra derrigortu zuen. Ez zen lantegi erraza izango, garaiko jendartean zama handia baitzen emakume batentzat halako akusazio baten pean ikustea bere burua. Ziur aski haren bizitza izugarri baldintzatu zuen epaitegietako liskarrak. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan topatu dute Katalina Belauntzakoaren heriotza agiria. Tolosan hil zen 1546ko ekainaren 4an.

EMAKUME ASKEA

Jesus Angel Solorzano historialariak ikertu du Katalinaren epaitegietako kasua eta dokumentu horietan lerro artean irakurriz, zenbait ondorio jarri ditu mahai gainean. Hartara, Katalina emakume 'independente' bezala ageri dela nabarmendu du, ondoan gizonik ez zuena eta bere negozio propioak zituen. Garaian ez zen oso ohikoa hori. Segur aski, salerosketan aritzen zen Katalina eta baliabide propioak zituen. Donostiako alkateak ondasun guztiak kendu bazizkion ere, Valladoliden alegazioa aurkeztu zuen. Horrek hilabeteetako egonaldia, abokatuak, prozesu-kostuak... ekarriko zizkion eta, hala eta guztiz ere, aurrera egin zuen. Nabari da emakume indartsua zela eta bere burua defendatu zuela eskura zituen tresna guztiakin. Solorzaren ustez, pentsatzekoa da Katalinaren senitarteko gizoneko guztiak hil edo desagertu egin zirela eta bera geratu zela etxeko negozioarekin. Horregatik izango zituen baliabideak segur aski.

Bestalde, epaitua izan zen garairako, heterosexualitatearen eta ezkontzaren erakundearen arauetatik aparte bizi

Behean, «Dardarak» album ilustratuaren egileak. Ezkereskuin, Irune Irureta, Karmele Mitxelena eta Joana Aurrekoetxea. Andoni CANELLADA | FOKU





zen eta horrek ere asko esaten du Katalinaren izaerari buruz.

Maritxu Oiartzungoari buruz, ez zaigu ezer asko iritsi. Epaia Katalinaren kontrakoa izan zen. Solorzanoren ustez, badirudi Katalina zela bietan ikusgarriena, emakume otzaren rola apurtu zuena, garaiko arau sozialak hautsi zituena eta horregatik izan zen bortitzagoa bere kontrako jazarpena.

Apenas dakigun ezer Maritxuri buruz, baina horrek ez du esan nahi ez zuenik sufritu epaiketa paralelorik, norbere herrian bizitzea asko zailtzen duten horietakoa.

HARI-MUTUR BATI TIRAKA

Maritxuren eta Katalinaren kasuak 500 urtez isildutako genero eta sexu disidentzien historiaren hari mutur bat eskaintzen du eta hari horri tira egitea erabaki dute. Hortik osatu dute “Dardarak artxiboan” izeneko erakusketa eta “Dardarak” album ilustratua. Joana Aurrekoetxeak eta Karmele Mitxe-

lenak jarri dituzte hitzak eta Iruñe Iruretak, ilustrazioak.

Oiartzunen piztu da proiektuaren sua. Bertan martxan da Ku-ku Taldea, sexu eta genero disidentzia jasotzen duten euskarazko eta kalitatezko liburuak sustatzeko sortua. Urtero uzta berria prestatzen saiatzen dira eta aurtengo egitasmoa izan da “Dardarak” album ilustratua, hain justu. Fikziozkoa da istorioa, baina Katalina eta Maritxu dira protagonistak, elkar maite duten bi emakume heldu.

«2008an izan nuen Katalina eta Maritxuren berri. Donos-

«Dardarak artxiboan» erakusketaren irudi pare bat. Oiartzungo udaletxean egon zen lehendabizi eta Tolosako Andragoran, ondoren. Aurrerantzean beste toki batzuetara iristea espero dute.
DARDARAK ARTXIBOAN

Herritar batek salatu zuen Katalina Belauntzako eta Maritxu Oiartzungoa ikusi zituela «gizon batek emakume batekin soilik egin zitzakeen haragizko ekintzak egiten»

Alkateak zigor ‘eredugarria’ jarri zion Katalinari. Erbestera kondenatu zuten, auziaren gastuak ordainarazi zizkioten eta ondasunak kendu

tian egindako ekitaldi batean haien omeneko plaka bat jarri zen. Hor nonbait barruan geratu zitzaidan istorioa eta liburuarekin hasi ginenean, piztu egin zitzaidan berriro. Bitxia izan zen», kontatu du Joana Aurrekoetxeak.

«Katalinari eta Maritxuri buruz dakiguna oso murrizta da. Baina, hasieratik, album ilustratua, ez dugu iraganezko istorio bat kontatu nahi izan, gaur egungo istorio bat baizik. Orainetik iraganera jositako dago, zubiak daude bi garaien artean. Oinarrian, bi emakumeren arteko maitasun istorio bat kontatzen dugu, elkar zaintzen duten bi emakumerena. Adineko emakumeen sexualitateaz eta desiraz ere hitz egiten da, baguen gogo hori; normalean asko ikusten ez den iruditegia bistaratu nahi genuen».

Katalinak eta Maritxuk genero arauarekin hautsi zuten XVI. mendean. Honaino iritsi den informazio apur horretatik osatu behar da puzzlea.

Puzzle hori osatu nahian arkatze lan mardula egin dute Aurrekoetxeak eta Mitxele-nak, eta topatutako horri erakusketa forma eman diote, kontatu gabeko historian kapitulu berri bat idazteko gogoz. “Dardarak artxiboan” erakusketak Erdi Arotik Errenazimentura bitarteko garairako bidaia proposatzen du, fokua sexu eta genero disidentzien plazan jarrita.

ARTXIBOEN IKUSPUNTUA

Historia kontatzen duenak erabakitzen du zer den garrantzitsua, zer kontatzeko modukoa. Aurrekoetxeak dioenez, «badakigu artxiboak ikuspegi erabat androzentrikotik osatu zirela, gizon zuri, klase jakin bateko, heterosexual eta europarraren erabateko zentraltasunetik. Horregatik ez ditugu errelato subjektiboak, autobiografiak, emakumeen gogoetak... lehen pertsonan. Horregatik interpretazio lan handia egin behar izan dugu, eta kontu handiz, gainera».



Honetara iritsita, nabarmendu beharra dago epai judizialek sekulako garrantzia daukela kontatu ez den historiaren parte interpretatzeko orduan. Maiz, epai judizialean bakarrik agertzen dira protagonista bezala jendarteko zenbait sektore, nahiz eta zigorraren beaurrekoetatik izan. «Guk jaso dugun informazio ia osoa dokumentu judizialeetatik eratorritakoa da. Pentsa, emakumeen sexualitatearen inguruan jasota dauden asko Inkisizioaren epaiketa batean emakume batek bere bizitzari buruz kontatutakoak dira. Horrelako egoera bortizetan jasotako informazio urri horretatik osatu behar da kontaketa. Eta horietan maiz ikusten da emakumeek adierazten zutela haiek pasiboak zirela harreman horietan, emakumearen 'papera' betetzen zutela. Hori baitzen heriotza zigoretik salbatzeko modu bakarretakoa».

Epaiketa horietan maiz sodomia izaten zen epaituari leporatzen zitzaion delitua. Historian barna, sodomia kontzeptua gaur egungo homosexualitatearen ideari oso

lotuta egon da, baina ezin dira sinonimotzat hartu. «Goi Erdi Aroan, adibidez, kontzeptu horren barruan kokatzen ziren 'naturalizat' jotzen ez ziren sexu-praktika guztiak; alegia, ugalketari lotutakoak ez zirenak», azaldu du Aurrekoetxeak. Sodomia delitua «genero bitartasuna» ezartzeko eta «gizon eta emakumeak haien gizarte roletara egokitze» asmatu zen. «Jendartearen gaineko kontrola ezartzeko modua zen eta nagusiki delitu maskulinotzat jo zen», gaineratu du Aurrekoetxeak.

Badirudi, beraz, lesbianismoa ez zela sistematikoki zigortzen, ez zelako aukeretan agertu ere egiten. «Emaku-

Emakumeen arteko harremanen inguruko ezjakintasuna izugarria zen Erdi Aroan; erekziorik, penetraziorik eta eiakulaziorik gabe, zaila zen sexu harremanik irudikatzea

«Emakume kategorian sartzen ez zirenek sortu ohi zuten kezka handiena. Penetrazioa egiteko tresna falikoak erabiltzen zituzten edo emakumeak ankerkeriaz jazarri zituzten»

«Dardarak» album
ilustratua, Oartzungo
udaletxean izandako
erakusketan.
DARDARAK ARTXIBOAN

meak semenaren hartzaile fisikoak baino ez ziren, gizonen desira objektu pasiboak eta, genero harremanetan, mendekoak. Emakumeen arteko harremanen inguruko ezjakintasuna izugarria zen; erekziorik, penetraziorik eta eiakulaziorik gabe, garaiko Europako biztanleek ez zuten praktika horiek kontzeptualizatzeko interesik agertu eta emakumeen arteko harreman homoerotikoak ikusezinak izan ziren neurri batean».

Joana Aurrekoetxearen ustez, bi emakumeren artekoa «ez zen kontzebitu ere egiten edo ez zen kontzebitu ere egin nahi. Emakumeari ukatu egiten zitzaion sexu plazererako aukera bera ere». Hartara, agintariak gizonen arteko harremanak detektatu eta bortizki zigortzeari ekin zioten, «maskulinitate eredu jakin baten eta familiaren instituzioaren defentsan. 'Pater familias' ideiarenean gainean», azaldu duenez Amaia Nausia Pimoulier historialariak.

Europako hainbat artxibategi arakatu dituzte «Dardarak artxiboan» erakusketa osatzeko. Hor topatutako dokumentuetan sumatzen denez, «emakume kategorian sartzen ez ziren gorputzek eta rolek sortu ohi zuten kezka nabarmena». Bide horretan, bereziki zigortzen zituzten haien gainean 'funtzio maskulinoak' hartzen zituzten emakumeak, menderatzailearen rola hartzen zutenak. «Penetrazioa egiteko tresna falikoak erabiltzen zituzten edo gizonen jantzen ziren emakumeak ankerkeriaz jazarri zituzten».

Emakumeen sodomia ikusezin izatetik gero eta gogorrago zigortua izatera pasatu zen. «XI. eta XIII. mendeen artean matxinak –garaiko dildoa,

jostailu erotikoak– erabiltzea bekatu izugarri bihurtu zen», zehaztu du Aurrekoetxeak. Hala ere, emakumeen arteko sexu harremanek buruko min ugari sortu dizkio sistemari betidanik, klabe androzentrikoetan kabiarazten zaila zelako. Zakilik eta semen substantziarik gabe krimenik ote zen erabaki nahiak lan nekeza ekarri du mendez mende.

LEGE ESANGURATSUENAK

Ikusi edo ez, kontzebitu edo ez, lesbianismoa jopuntuan izan duten Europa Mendebaldeko legeak eta zigorrak ez dira atzo goizekoak. Kasu askotan, baina, delituak ez zeuden tipifikatuta eta zehaztuta, nahiz eta zigorrak jartzen zituzten. Baina, maiz, delitu zehatzik gabeko zigorrak dira. «Gizonen artean, askoz kasu gehiago izan ziren: gizon askoz gehiago erre zituzten sodomia leporatuta. Lesbianismoaren kasuan, ikusezinagoa izan da. Gizonen kasuan gogor zigortzen zen maskulinitate mandatuak hautsi eta familiaren aginduak ez betetzea».

Lesbianismoari dagokionez, V. mendean, Agustin Hiponakoa gotzainak «antinaturalizat eta bekatutzat» jo zuen ugalketa helbururik gabeko desio oro. «Naturala den sexua zulo egokitik, tresna egokiek, posizio egokian eta gehiegizko lizunkeriarik gabe egin behar da», agintzen zuen.

XII. mendetik aurrera, homosexualitateak gero eta zigorrak jaso zituen Elizaren aldetik. Heresiaren parean jarri zuten eta Inkisizioak gogor egin zuen haren kontra. Sexurako tresnak –matxinak edo dildoa– erabiltzea «bekatu izugarritzat» jo zuten eta sodomia heriotza zigorrarekin zigortzen hasi zen.

XIII. mendean, Alfonso X.aren erregealdian, Gaztelan sortutako Zazpi Partidak arautegian zehaztu zen sodomia lizunkeria bekatua zela eta prebentziozko zigorrak ezartzen hasi ziren; erailketa zeremonia publikoak eredu garriak izateko eta izuaren pedagogia egiteko.

1497tik aurrera, eta Errege-erregina Katolikoek aginduta, sodomiaz errudun jotzen zutenari ondasunak kentzen zizkieten eta erre egiten zuten.

XVI. mendearen erdialdetik aurrera, emakumeen gaineko kontrola zorrotzu egin zen eta itxialdia areagotu, emakumeak eremu pribatura mugatuz.

MOJEN KOMENTUAK

Gaur egungo talaiatik irudikatzen zaila izan daitekeen arren, mojen komentuak irudimen eta askatasun espazioak izan ziren garai batean. Hori suma daiteke historiaren lerro artean irakurtzen, letra txikiari erreparatzen. Bavierako monastegi bateko bi maitasun gutun iritsi dira guregana, adibidez.

Erdi Aroan bezala geroxeago ere, «gizon batekin ezkondu edo moja bilakatu» esanak esanahi osoa izan du gure jendartearen. «Moja bilakatu» hori zigorra balitz bezala saldu izan digute, baina askatasunerako giltza ere izan zitekeen, nahiz eta apenas irudikatu den horrela.

«Erdi Aroan europar men-debaldeko emakumeen erresistentzia komentuetan ardatz zen; harresi haien barruan sortzen ziren harremanetan. Kultura hartan emakumeak askatasunez harremantzeko eta jazarpenari aurre egiteko aukera ematen zuten leku bakarretakoak ziren komentuak».

Ez zen asko luzatu denboran, Erdi Aro amaieran eman

zen eta ez zuen jarraitu XIII. mendetik aurrera. «Badirudi garai batean emakumez soilik osatutako espazio bakarrak izan zirela, gizonezkoen zaintzarik gabe. Nolabait beren buruarekiko autodeterminazioa eduki zezaketen eta pentsatzekoa da azpikultura lesbiko bat egon zela». XII. mendean itzali zen loraldi labur hura, garai ilunagoak hasi baitziren emakumeentzat.

Tentazioak saihesteko edo, Pariseko (1212) eta Rouengo (1214) kontzilioek mojei elkarrekin lo egitea debekatu zieten eta logeletako lanparek gau osoan piztuta egon behar zutela arautu zuten. XIII. mendetik aurrera, arau monastikoek mojei agindu zehatzak ezarri zizkieten: besteen logeletan ez sartzeko edo horiek giltzaz ez ixteko, abadesak ikuskatu ahal izateko eta ko mentuan 'adiskidetasun-lotura' bereziak saihesteko.

«Ez zen zehazten moja batek zer egin zezakeen bere atea itxita edukiz gero, baina bistakoa da, mojen arteko olerki eta gutunek erakusten duten bezala, lege horien mende zeuden emakumeek ez zutela irudimen faltarik izan eta ko mentuak topaketa sexual eta afektiboen leku eta lekuko izan zirela», nabarmendu du Aurrekoetxeak.

TROBALARITZA GALEGO LESBIKOA

“Dardarak artxiboan” erakusketak prestatzeko mila begirekin behatu dituzte epaitegiatarako artxiboak, baita garaiko literatura ere. Lerro artean eta zorrotz irakurriz, pista esanguratsuak topa baitaitezke. Bide horretan, ‘testu lesbikoak’ topatu dituzte, maiz manipulatutakoak, «harreman heterozentratuetatik eta genero arauetatik ihes egiten zuten bestelako



Ezkerrean, Katalina eta Maritxu, «Dardarak» album ilustratuan. Eskuinean, Erdi Aroan lesbianismoa nola irudikatzen zuten erakusten duen ilustrazioa. DARDARAK ARTXIBOAN



desirak, iruditegiak eta istorioak existitu zirela isilarazteko». Hartara, ‘marida’ jartzen zuen tokian ‘marido’ jartzea eta errealtatea desitxuratzea ohiko samarra da Erdi Aroko zenbait testutan.

Galiziako trobalaritzan bada kasu bat, Maria Leve eta Sancha Perezena. XIII. mendean, Compostelan bizi ziren elkarrekin eta kantutegian jasota geratu da haien kasua. «Erdi Aroko Europan, elkar maitezuten bi emakumeren izenak jasotzen dituen kasu bakarra da, tartean kondena juridikoa izan gabe. Haiei buruz ari dena trufatu egiten da, barre egiten du bi emakumeen arteko harremanaz, baina aztarna hor geratu da», dio Aurrekoetxeak.

«Guretzat deskubrimendua izan da. Galizian sekulako ondarea daukate aspaldiko kantutegietan eta horietan jasota geratu da bi emakumeren arteko maitasuna, baita bi gizonezkoen artekoa ere. Europa mailan dagoen lagin interesgarrienetakoa da, horrelako kasu gehien dituen».

Kontrako adibideak ere bada: Hildegarda Bingengoare-

na, kasu. XII. mendean 80 urtera arte bizi izan zen eta eragin handia izandako abadesa, mediku, konpositore eta filosofoa izan zen. Gaur egun gordetzen den Erdi Aroko emakumezko ahots bakarrenetakoa. ‘Sodomia’ hitza erabili ez bazuen ere, emakumeen arteko harreman homoerotikoak gogor gaitzetsi zituen eta genero bitartasunaren defendatzaile sutua izan zen. «Aurrerapean egin zituen alor askotan, baina homoerotismoa eta genero performatibitatea erabat gaitzetsi zituen publikoki. Lan ideologiko garrantzitsua egin zuen alor batzuetan, baina beste batzuetan oso mendeko agertu zen», nabarmendu du Aurrekoetxeak.

Katalina eta Maritxuk elkar maitezuten duela 500 urte. “Dardarak” album ilustratuak jaso duenez, «diotenez, nor bere etxean bizi izan zen bolada batez, nor bere etxean, nor bere benetako etxetik urrun». Epaituak izan ziren elkar maitatzeagatik eta bostehun urte geroago, leihoak zabaldu dituzte, haien etxea eta jendartea aireztatzeko.

URMAELEN EKOSISTEMA KOLOKAN

Arrain txiki bat berea ez den urmaelean

📁 **INGURUMENA** / Iñaki SANZ-AZKUE

Arrain gorri txiki bat edo dortoka eder sinpatiko bat baino ez da, baina bere bizilekutik kanpo, berea ez den putzuan, ikaragarriko kaltea sortu dezake. Ez gara konturatzeko hautsiko duela ekosistema oso bat, beste hainbat animaliarik, landareri edota izaki biziduni kalte izugarria eginez. Nahikoa dela espezie exotiko inbaditzaile bakar bat askatzea, urmaelak osatzen duen ekosistema hankaz gora jartzeko.

Sentimenduak onak baitira, baina betiere ezagutzari lotuta doazenean. Horregatik, behingoz, gaiari seriotasunez heldu beharko genioke eta aurrean dugun arazoari adarretatik eutsi. Munduko hezeguneen azaleraren %85 desagertua dagoen honetan, ez duelako balio horien berreskurapenerako urmaelak sortzea, gero gizakiak berak suntsitzen baditu horiek espezie exotikoak askatuz. Eta oraintxe, hori da errealitatea. Gizakia ulertuko duenik ez dago mundu honetan.

PUTZU BAT AUZOLANEAN

Euskal Herriko herri txiki batean gertatu zen, auzolanean sorturiko putzu eder batean. Hezeguneen mundu mailako gainbehera honen erdian, askok egin dute, azken urteetan, putzu txikiak edota mikrohezeguneak sortzeko apustua. Euskal Herri osoan dozenaka urmael sortu dira ekosistema berezi eta zaugarri horiek berreskuratu nahian, eta hala, udalerririk askotako biodibertsitatea hauspotzeko asmoz. Ekintza horrek are eta balio handiagoa hartzen du auzolanean egiten bada, horrek ere

Arrain gorri bat da. Arrain gorri txiki bat baino ez, pentsatuko duzu. Edota dortoka bat da. Dortoka eder sinpatikoa, esango dizute. Izan ere, animalia exotikoak etxean sartzen ditugunean, lotura bat sortzen da haiekin eta lotura horrek pertsonak errealitatea ez ikustea eragin dezake. Itsutzen gaitu, eta ez gara konturatzeko arrain txiki horrek edota dortoka sinpatikoak, bere bizilekutik kanpo, berea ez den putzuan, ikaragarriko kaltea sortuko duela.

sortzen duelako lotura eremuarekin. Horregatik, herri txiki horretan, heldu, gazte zein umeek parte hartu zuten eta elkarrekin putzu bat sortu zuten aditu baten laguntzarekin, ekosistema berriak duen garrantziaz jabetuta, ekosistemarekin batera, naturaz gozatu eta harekin ikasteko asmoz.

Ezustekoa, ordea, urtebetera etorri zen. Ezusteko handia, lehenik adituak hartu zuena. Bigarrenik, herritarrek harturikoa. Hirugarrenik, arrain gorriek eman zieten. Herritarrek adituarekin kontaktuan jarri zirenean, sorturiko urmaelean arrain gorriak edo karpinak –urre-arrain moduan

ezagunak direnak (*Carassius auratus*)– askatu zituztela esan zioten adituari, haren harridurarako. Putzua egin berri-tan putzuari bizi pixka bat eman nahi ziotela eta... karpin batzuk askatu omen zituzten, gurasoek bultzatuta, umeak ekintzan parte hartzera gonbidatuz. Eta hala, etorri zen bigarren ezustekoa, adituak hori ez dela sekula egin behar esan zienean. Animaliarik ez dela askatu behar haren bizilekutik kanpo eta are gutxiago, kanpotarrak. Eta esan zien sorturiko ekosistema berri hura suntsitzeko lehen pausoa egin zutela urmaela sortu berri-tan. Hala, damaturik, urte

Urre-arrainak depredatzaileak dira eta urmaela bateko ekosistema natural osoa aldatzeko gaitasuna daukate.
GAUR8



betera putzu txikia berreskuratzeko auzolana egin zuten guztiek. Hirugarren ezustekoa, ordea, arrain gorriek eman zuten auzolanean bertan. Izan ere, ale gutxi batzuk askatu eta urtebetera 425 karpin harrrapatu zituzten putzuan. Denbora gutxian ikaragarri ugaltu ziren.

Ezaguna da, ordea, karpinak depredatzaile sutsuak direla. Bertako landaretza eta orno-gabeak ez ezik, zapaburuak ere jan ditzaketela, besteak beste, eta beraz, ekosistema natural osoa aldatzeko gaitasuna dutela. Herri txikian ondo ikasi dute jada espezie exotikoak askatzea zein kaltegarria den. Ezagutza sentimenduen aurretik jarriko dute hemendik aurrera.

MEHATXU GEHIAGO MEHATXATUARI

Berriak ez gaitu ezustean harrrapatu, baina berriz ere alerta piztu du adituen artean. Aurretik ere desagertzeko zorian zegoen Hegoaldeko zuhaitz-igelari (*Hyla meridionalis*) –Igeldoko igeltxo moduan ezagutzen dena– arrisku berri bat gehitu behar zaio orain: espezie exotiko inbaditzaileena.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabi Rubiok azaldu du egoera. Oraingoan, arrainak ez ezik, dortokak edo Floridako apoarmatuak (*Trachemys scripta*) dira protagonistak, horiek ere etxeetarako erosten diren ohiko animaliak. Kasu honetan, arrainek zein dortokek, larbetan ez ezik, putzuko landaredian ere eragina izan dute. Hala, urte luzez bertan egon diren lezkak eta algak jan dituzte eta landaretza desagertu egin da igeltxo dagoen putzu garrantzitsuetako batean, eta horrek putzuko ura uhertzea ekarri du. Azken urteetan, igeltxoaren zapaburu kopurua

asko jaitsi dela ikusi dute. Alegia, desagertzeko zorian zegoen igeltxoaren putzu onetariko batean, kumeak gero eta gutxiago dira urtez urte. Etorkizuna, putzuko ura bezala, iluntzen doa pixkanaka.

Hirigunearekiko gertutasunak ez du lagunduko, noski, Igeldoko igeltxoaren kasuan. Proiektu urbanistikoak etsai izan dituen espezie horrek orain gizakiaren sentsibilitatea du kontrario. Animalia batzuekiko sentsibilitatea, noski. Izan ere, kasu honetan, kartela ere bai baitago bertan jarria, animaliarik ez askatzeko eskatuaz. Informatze soila, beraz, badirudi ez dela nahikoa, sentimenduak tartean daudenean eta ezagutza falta denean. Etxeko dortoka beti izango da desagertzeko zorian dagoen mendiko igeltxo baina garrantzitsuagoa; bazuentzat, behintzat.

Halako zerbait pentsatuko dute Donostiako Hezkuntza Fakultateko ikasle eta irakasleek ere. Izan ere, duela urte gutxi Fakultatean bertan urmaela sortu zuten, Eskoletako Urmaelen Sarea izeneko ekimenaren barruan. Eredu hori izan da azken urteetan hezkuntza berrikuntzarako, ekosistemen lanketarako eta biodibertsitatearen, metodo zientifikoaren eta beste hainbat edukiren lanketarako laborategi naturala. Bertakoak, alabaina, arduratuak ez ezik, nekatuak ere badaude jada. Duela hilabete batzuk lehenbiziko arrain gorriak ikusi baitzituzten bertan. Saiatu dira horiek harapatzen eta hartu dituzte batzuk. Beste batzuek, hala ere, bertan jarraitzen dute. Ekosistema eder baten eredu zena kaltetua izan da, eta horrek martxan ziztuzten hainbat proiektu kaltetu ditzake. Horren aurrean, irakasleek beste erabaki bat hartu



dute, eta arazoa aukera bihurtu. Ikasleei erronka bat jarri diete eta haiek ikertzaile bihurtu dituzte, galdera eragile bat erabiliz: zer gertatzen da urmaeleko ekosisteman arrain gorri bat askatzen dugunean? Eta beraz, ikasleak martxan jarri dituzte, ikertzen.

Zarautz inguruan ere jasan dituzte ondorioak. Kasu horretan, karramarro gorriek (*Procambarus clarkii*) eraginda. Orokieta Herri Eskolako urmaelean azaldu ziren horiek, Uliako putzu sortu berrietan bezala. Azken horietan, ordea, norbaitek nahita egindako akzioa izan omen zen, gainera. Gizakia beti dago hor, sortzeko eta suntsitzeko.

BABESGUNEETAN BABESIK EZ

Izarraitz Kontserbazio Bereziko Eredua (KBE) Europa mailan babestua dagoen eremua da. Bertan, bada putzu handi samar bat, Marikutzeko putzua,

Xoxoteko eremua herritar askorentzat erreferentzia izanda, badirudi urmael handia arrainak askatzeko eremu bihurtu dela, horrek sortzen dituen kalteak kontuan izan gabe

Umeen alfabetatze ekologikoa ezinbestekoa da, baina helduen papera oso garrantzitsua da bide horretan eredu izateko eta transmisio egokia egiteko

Irudian, Hernaniko Santa Barbarako lakua. Bertan ugariak dira dortokak eta urre-arrainak.

Jon URBE | FOKU

hiriguneekiko duen distantziagatik eta gune babestuan egonda, printzipioz biodibertsitate handiko eremua izateko aukera handia duena. 2023ko azaroan egindako bisitak, ordea, ezusteko tristeza bezain kezagarria ekarri zuen. Izan ere, baso-igel gorriaren (*Rana temporaria*) errute garai betean, eta inguruko pistetako putzu-zuloetan erruteak ikusten ziren unean, putzu nagusian ez zegoen baso-igel gorriaren arrautza bat bera ere. Horien bilaketarako behaketa egiteko garaian, ordea, arrain gorrien kopuruak atentzioa eman zuen. Putzua arrain gorri zegoen, gune babestu baten erdian. Xoxoteko eremua herritar askorentzat erreferentzia puntua izanda, badirudi urmael handia arrainak askatzeko eremu bihurtu dela, horrek sortzen dituen kalteak kontuan izan gabe. Non hobeto gure etxeko arraina, hirigunetik urruti eta gune babestu baten erdian dagoen putzu batean baino (ironia aktibatu, mesedez)?

Horren aurrean, jada, soluzio guztiak dira zailak. Arrain guztiak kentzeko, putzua hustu egin beharko litzateke eta horrek ez luke ziurtatuko, haren tamaina ikusita, guztiak ateratzeko aukera legokeenik. Arrain gorrien ugaltzeko gaitasuna ikusita, eta jendearentzat animaliak askatzeko lekua

dela ikusita, zer egin? Merezi al du? Edo bere horretan utzi eta beste nonbait leku ezku-tuagoan putzua sortzea komeni al da? Gizakiak soluzioa eman, gizakiak buruhaustek sortu.

Baina benetako soluzioa, berez, erraza da: ez erosi espezie exotiko inbaditzaileak etxerako. Eta akabo buruhaustekak.

ARRAINAK, DORTOKAK...

Izarraitz ingurukoa, alabaina, ez da adibide bakarra. Hernaniko Santa Barbara mendian duela hamarkada batzuk ez zen putzurik. Bertako harrobia handitzeak, ordea, hondakinak horren azpian zegoen kareharrizko zulo edo dolinara erortzea ekarri zuen, eta horrek dolinako zuloa iragaz gaitz bihurtzea eragin zuen. Hortik aurrera, euri urak egin zituen lan guztiak, eta pixkanaka, betetzen joan zen, zuloa putzu bihurtuz, egungo itxura ederra hartu arte.

Kanpoaldeak erakusten duena, ordea, ez dator bat gunearen egoerarekin. Aspaldi, zaborra ez ezik, karpinak, karpak, dortokak eta, besteak beste, *black bass* espezieko arrainak askatzen hasi ziren bertan; azken horien kasuan, arrantzarako. Une honetan, hernaniar askoren pasealeku izanda, Euskal Herriko hirietako eta herrietako parke asko-



tan gertatu den bezalaxe, putzua, hainbat espezie exotikoren bizileku izateaz gain, jendeak bisitatzeko gune ere bihurtu da. Guraso askok umeak bertara eramaten dituzte arrainak eta dortokak ikusteko gogoz, naturara gerturatzeko asmoz edo. Espezie batzuekiko sentsibilizazioa, beraz, nahi gabe, txikitatik bultzatzen ari gara, eta nahi gabe, okerreko bidea hartzea ere bai. Santa Barbarako putzua espezie exotiko inbaditzaileak diren dortoka eta arrain horien bizileku natural moduan ikusten dute jada ume askok. Alegia, urmaeletan horiek aurkitzea normala da haien ustez, eta horiek bertan askatzea, ekintza ona, gero bisitatzeko aukera ematen baitu, gainera. Animalien alde egiten dugun ekintza moduan hartzen dira horiek.

ERREFERENTZIA ALDAKORRA

Ikerketen arabera, belaunaldi ezberdinetako pertsonen ingurumen kontserbazio mailaren erreferentzia ezberdinak dituzte, jaio diren unean ingu-

ratzen dituen paisaiaren egoeraren arabera garatzen dituztenak. Eta horri izen berezi bat ematen diote ikertzaileek: Erreferentzia Aldakorraren Sindromea. Hau da, inguruan biodibertsitate altua zegoen garai batean jaio diren pertsonen biodibertsitate maila hori izango dute erreferentziatzat. Altua izatea da normala. Biodibertsitate baxuko garai batean jaio direnentzat, ordea, eremu natural baten egoera normala hori bera izango da: biodibertsitate baxuko eremuak erakusten diona.

Beraz, ume batek bere inguruko putzuan dozenaka orno-gabe txiki, hainbat koloretako burrunzki espezieak, hainbat anfibio mota, hegaztiak, ugaztunak eta landaretza anitzaren orde, arrainak eta dortokak baino ez dituen putzua ezagutu badu, hori izango da bereztat ekosistema egoki baten erreferentzia: ekosistema txiro bat, hain zuzen. Eta ez du hori hobetzeko beharrik ikusiko. Autore askoren ustez, heldu-ume transmisioaren bidez erreferentzia horiek hobetzeko

Hernanin izandako «biodiBERTSOA» emanaldiko une bat. Iñaki Sanz-Azkue azalpenak ematen eta Maialen Lujanbio eta Unai Agirre –eta herritarrak– adi, geroko bertsoak josteko informazioa jasotzen. IKORKOTX

aukera dago, baldin eta helduak badaki txikia zenean inguratzen zuen ekosistema nolakoa zen, edota nolakoa izan beharko litzatekeen haren kontserbazio egoera.

Egoera honetan, beraz, umeen alfabetatze ekologikoa ezinbestekoa da, baina helduen papera oso garrantzitsua da bide horretan eredu izateko eta transmisio egokia egiteko. Biodibertsitatearen galeraren krisi honen erdian, hezkuntza arloan ez ezik, gizarte mailan ere saiakera egitea ezinbestekoa da, jendartearen ingurumen kultura handitzeko eta ezagutza horren transmisioa ez eteteko.

ESPERANTZARAKO DEI BAT

Maiatzaren 24an, Hernaniko Udalak bultzatuta, “biodiBERTSOA” izeneko ekitaldia egin zen Hernanin, Santa Barbarako putzutik ez oso urruti. Bertan, Urumea bailarako ekosistemen eta animalia espezieen ezagutza zabaltzeko asmoz, azalpen zientifikoak eta bertsoaritza nahastu ziren, Eñaut Aiertzaguenak egindako animalia-ilustrazioez osaturiko panelak erreferentzia moduan hartuta, ibilbide gidatu baten bidez.

Azalpen zientifikoak ematen bukatu berri genuela, eta Maialen Lujanbioaren eta Unai Agirreraren gaiarekiko bertsoez gozatzen, herriko bi udaltzain gerturatu zitzaizkidan une batean, ekitaldia jarraitzen ari zen taldetik atera eta haiekin hitz egin nezakeen eskatuz. Udaltzainek jaso berri zuten deiaren berri eman zidaten. «Galdera arraroa da, baina...» batekin hasita, eman zuten azalpena. Hernaniko baserri gune batetik jaso zuten deia, bertako putzu batean norbaitek dortoka bat askatu zuela esanez, eta bertan igel berezi

bat zegoela-eta, arduratuta zegoela deitu zuen pertsona.

Udaltzainekin hizketaldia amaitutakoan, eta dena argituta utzi genuenean, atzera ere jendartera gerturatu nintzen. Udaleko arduradunak etorri ziren, Maialenekin eta Unairekin batera zer gertatu zen galdezka. Arduratuta, dena ondo ote zegoen. Irribarre batekin, deiaren berri eman nien eta dena azaldu.

Deitu zuen pertsonak putzuarekiko, igelekiko eta oro har, ekosistema batekiko adierazi zuen ardurak harritu bezainbeste poztu egin ninduen. Mundu mailan espezie exotiko inbaditzaileak biodibertsitatearen galeraren arrazoi nagusietako bat direla jakinda, are gehiago. Bertako ekosistemak ezagutarazteko ekitaldiaren erdian, Maialenekin batera hurrengo kartelera bidean nindoan oraindik ere deiaren arrazoa buruan bueltaka nuela, eta pentsatu nuen, norbaitek gaiari buruz hausnartzeko eta dei hori egiteko tartea hartu bazuen, dei hori bera izan zitekeela zerbait ondo egiten ari garela seinale...

Ekitaldira gerturaturiko jende multzoarekin batera, Hernaniko kaxkotik behera, hurrengo kartelera gerturatu ginen. Nora eta Urumeako hezeguneetako animaliak erakusten zituen kartelera. Eta putzuetako animalia-irudien artean, bertan ikusi nuen igela. Deia egin zuen pertsonak aipaturiko igela, hain zuzen ere. Aurrean genuen jende multzoa begiratu eta hurrengo deia horietako pertsona batek egin zezakeela pasatu zitzaidan burutik. Zailantzarik gabe, ezagutza zabaltzen jarraitu beharra dago: «Goazen hurrengo bertsoa kantatzera, Maialen».

Tetris

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Lehengusuak emanda iritsi zen gure etxera, lehenengo makinita. Grisa eta luzanga zen, erdian bihurgune txiki batekin, eta gorria zuen botoirik garrantzitsuena. Hura sakatu eta musika errepikakor batek hartzen zuen inguru guztia, ozen, jokalaria jolasean huts egiten zuen arte. Zenbat eta hobeto jokatu, orduan eta azkarragoa zen doinua –tin-tiriririn-tiriririn-tiriririrara-tintin-tintin-tintin-tintin...–, orduan eta larriago sentitzen zen jokalaria.

Errepikakorra eta estua zen Tetrisean puntuak irabazteko eta mailaz igotzeko dinamika, baina, nahikoa zen komunean edo sofan bizpahiru eserialdi makinitaren aurrean egitea, behatzen

eta botoien arteko sinbiosi perfektura iristeko. Pentsa, Z eta T formadun pieza bihurriak maitatzera ere iritsi ginen, azkenerako.

Auskalo zenbat urte joan diren gailu hark, pilen kontaktuarekin erotuta, gauetan bakarrik piztu eta doinu sarkor harekin esnatzen gintuenetik. Bada, berriki aurkitu du gure amak, bazkalondo batean bilobarentzat jostailu zaharrak ateratzen ari zela. Tetrisa, semea, amona.

Sinbiosi perfektua, berriro. Bizitza Munduko Tetris Txapelketa bilakatu dela iruditzen baitzaigu, kontziliazio deitu nahi geniokeen baina deitu ezin diogun bideojoko honetan. Eta, tira, pantailaz pasatzea errespetuzko zaintzarekin uz-

tartu nahi duzunean, piezak gero eta azkarrago erortzen hasten dira pantailaren goialdetik, haiek elkarren artean uztartzea ia ezinezko bilakatuta, musikaren etenik gabe. Baina, lasai: partidako puntu horretan, makinitak beti oparitzen dio jokalaria arnasa ematen duen piezaren bat, gutxienez lerro bat edo bi desagerraraztea ahalbidetuz.

Pieza horiek dira amona-aitonak; gure haurrenak, zehazki, eta beste askorenak, oro har. Bizimodu honen erritmoari, piezei eta musikari guk eusten diegula uste dugun arren, ezingo bainuke Tetris partida jokatzen hasi ere egin, haiek jostailu zaharren artetik makinitak aterako ez balituzte. Eskerrik asko, partida guztiengatik. •

Janariarekin ez da jolastu behar

Miren AZKARATE
BADIOLA

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeak bertako gobernuaren kudeaketaren esku daudenetik ezin uka aspektu batzuetan, behintzat, egoera hobetu dela. Pentsa, bertso eskolak dauzkate!

Urte batzuk atzera hori eta beste kontu batzuk pentsaezinak ziren, eta esan beharra dago horrelako hobekuntzek bizi baldintzak hobetzea dakartela. Aldaketa txikiak sistemarentzat, baina onura handiak bertan “bizi” direnentzat.

Hala ere, badira hobetu beharreko zenbait kontu gehiago, bizi baldintzetan izugarri eragiten dutenak, eta presoen-tzat, bereziki haien osasunarentzat, oso garrantzitsuak direnak: elikadura, kasu. Elikadura, edozeinentzat, bizi den lekuan bizi dela ere, funtsezko zutabea da. Eusko Jaurlaritzak milioi erdi euro eman dizkio aurten, eta urteak atzera eginda hiru milioi euro guztira, janaria egoera txarrean eskaintzeagatik zigortua dagoen enpresa bati. Agintarientzat ez du arazorik suposatzen –nahiz eta zi-

gor horien jakitun izan–, haiei esleitu baitiete Zaballako janari hornidura, besteak beste.

Jakin badakit murruek beste aldean gertatzen denak inoiz ez duela inporta izan erabaki horiek hartzen dituzten eta egunero gure kontu ederki bazkaltzen duten horientzat. Espetxean egotea zigor nahikoa izango ez balitz bezala, janari kontuekin ez zigortzea oinarrikoa dela iruditzen zait. Bost izarretako hotel baten pare ez, baina usteldu gabeko produktuak jateko aukera, bederen? •



Luixa REIZABAL ARRUABARRENA

EHUren Psikologia Fakultateko irakasle eta ikertzailea eta UEUko Psikologiako sailburua



Emantzipatzerik ez izatearen ondorio psikologikoak

Gero eta gehiago dira Europar Batasunean emantzipatu nahi eta ezin duten 25-34 urte bitarteko langile gazteak. Hori dio, bederen, NAIZek jasotako Eurofund erakundeak gazteen egoerari buruz argitaratu berri duen txostenak. Txostenaren arabera, lan-baldintza prekarioak eta etxebizitzaren prezioa dira emantzipatzeko oztopo nagusiak.

Emantzipazioa gertakari normatibo garrantzitsua da garapenean. Izan ere, bizi-zikoaren ikuspegi psikologikotik, mendebaldartutako herrialdeetan, ikasketak amaitzea, lanean hastea, gurasoen etxetik joatea, familia osatzea eta antzeko gertakariak dira helduarorako trantsizioa behar bezala egiteko ezinbesteko garapen-atazak.

Emantzipatu nahi eta ezin izatea espero ez den gertakari negatiboa da eta, ondorioz, eragin kaltegarria izan dezake egoera horretan dauden pertsonen garapenean. Artikulu honetan, eragin psikologiko nagusiak aztertuko dira. Hasi aurretik, aipatu behar da eragin horiek gogorrakoak izan daitezkeela emakumeen kasuan –bereziki ama badira–, prekarioagoak izaten baitira haien lan-baldintzak.

Batetik, ziurgabetasun ekonomikoak eta mendekotasunak estres eta antsietate maila handiak eragin ditzakete. Pertsonak irtenbiderik gabeko egoera batean harrapatuta senti daitezke, etorkizuneko planik egiteko aukerarik gabe, eta horrek haien ongizate emozionalari eragin diezaioke.

Bestalde, independentzia lortzeko ezintasunak porrot-sentimenduak eta itxaropen sozialak edo/eta pertsonalak ez betetzearen pertzepzioa ekar ditzake eta horrek guztiak autoestimua urritu dezake.

Halaber, agerian geratu da norberaren nahiak ez betetzea depresioa pairatzeko eta jendartetik baztertuta sentitzeko arrisku handiagoarekin erlazionatzen dela. Gainera, intimitaterik ezak eta mendekotasun ekonomikoak familia-harremanak kaltetu ditzakete, harmonia gutxiko giroa sortuz.

Azkenik, emantzipazioa funtsezkoa da gizarte-trebetasunak eta bizimodu independenterako beharrezkoak direnak garatzeko. Esperientzia hori ez edukitzeak atzeratu egin dezake helduarorako funtsezkoak diren trebetasun horien garapena.

Nahi izan arren, emantzipatzerik ez duten pertsonengan ez ezik, pertsona horien gurasoengan ere eragin dezake psikologiaren eremuan «habia betea» gisa ezagutzen den egoerak. Ikerketen arabera, alde positiboak zein negatiboak izan ditzake gurasoentzat habia beteak. Alde positiboan artean, seme-alabengandik jaso daitekeen laguntza instrumentala eta emozionala dugu nagusi. Negatiboei dagokienez, ekonomian –pertsona bat mantentzeak ekartzen dituen gastuak–, gurasoen bizimoduan –nahi dutena egitekerik ez izatea, bereziki amek, beren gain hartzen baitute seme edo alabaren zaintza– eta etxeko giroan –aipatutako familia-gatazkak–.

Halako egoeretan kontuan izan beharreko jarraibideak eskaintzen dizkigu psikologiak. Seme-alabei dagokienez, ulermena, maitasuna, laguntza eta abar eskaini behar dizkiete gurasoei, eta, noski, beren gain hartu dagozkien ardurak eta ekarpenak egin, etxean harmonian bizi daitezten. Gurasoei dagokienez, beste hainbeste, betiere seme-alabei argi utzita haiek ere etxeko ardurak hartu behar dituztela.

Laburbilduz, ondorio psikologiko kaltegarriak ekar ditzake emantzipatzerik ez izateak. Hala, garrantzitsua litza-teke egoera hori sortzen duten lan-baldintzak eta etxebizitzaren prezioak duintzeko beharrezkoak diren egiturazko aldaketak egitea. •



Gero eta gehiago omen dira Europar Batasunean emantzipatu nahi eta ezin duten langile gazteak. PIXABAY

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Nori gustatzen zaio Europako eredia?

EAjko europarlamentari Izaskun Bilbaok dioenez, Errusiari ez zaio gustatzen Europako eredia, «non ongizatea eta baloreak diren nagusi». Asteon entzun diot NAIZ Irratian. Ez dakit Errusiari gustatzen zaion Europako eredia; niri, ez. Errusia-koa ere ez (bide batez, Errusia ere Europa da). Ez baita egia ez Europar Batasunean ez Errusian ongizatea eta balioak nagusi direla.

EBren balioek askatasuna eta eskubideak dituzte ardatz. Haren printzipioen arabera, herritarren ongizatea bermatu eta gerrak saihestea du helburu. Baina AEBen eta NATOren esanetara gerrak sustatu eta herritarren ongizatearen aurkako politikak ezartzen ditu. Beraz, esan beharko genuke Europar Batasunari ez zaiola gustatzen Europar Batasunaren eredia.

Esakune (groucho) marxistari jarraituta, EBk badiosku (Ursula von der Leyenen ahotsarekin): «Hauek dira nire printzipioak; baina gustuko ez ditudanez, badauzkat beste batzuk».

«Guk beti defendatu izan dugu Europa indartsu bat izateko Europako armada bat egon behar dela, baina ez gerra egiteko, baizik eta, inguruan gertatutakoa ikusita, defendatzeko», dio Bilbaok. *Si vis pacem para bellum* (atzera Von der Leyenen ahotsa). Eta NATO? «Hori esanda, bakearen diplomazia ere indartu egin behar dugu. Europa bake proiektu bezala sortu zen». Horregatik prestatu behar du gerrarako.

Bi urte pasa dirau Ukrainako gerrak; bai, Ukrainaren inbasioak. Hura hasi eta hilabetetsu igarota, akordio bat iritsi zuten Turkian maila handiko ordezkariak. Haietako bat Errusiako Kanpo ministro Sergei Laurov zen; bestea, haren homologo ukrainar Dmytro Kuleba. Egun batetik bestera, baina, akordioaren arrastoa desagertu eta Butxa hiriko sarraskiak orde-

tu zuen hedabideetan. Ez dago batere argi nork eragin zuen sakaila hura, errusiarrek, ukrainarrek edo biek.

2022ko otsailaren 28an, gerra hasi eta lau egunera, Ukraina eta Errusia elkarrizketan hasi ziren Bielorrusian. Martxo amaierarako inork ez zuen zalantzarik egiten bake akordioa iristear zegoela. Inork ez zuen kontrakorik esaten, alegia. Zerk eragotzi zuen?

Gerora argitaratutako txosten batzuen arabera, aldeak akordio bat lortzetik gertu egon ziren, baina ez zuten lortu mendebaldeko herrialdeak aurka zeudelako eta arestian aipatutako gerra krimenak aurkitu zituztelako. 2022ko maiatzean, “Ukrainska Pravda” egunkari ukrainarrak jakinarazi zuen Putin apirilean Zelenskirekin biltzeko prest zegoela, baina Boris Johnsonek, Erresuma Batuko lehen ministroak, presidente

Bi urte pasa dirau Ukrainaren inbasioak. Hura hasi eta hilabetetsu igarota, akordio bat iritsi zuten Turkian maila handiko ordezkariak. Egun batetik bestera, baina, akordioaren arrastoa desagertu egin zen

ukrainarra bisitatu eta ez zela bilerarik izan. Putin presionatu egin behar zela esan zuen Johnsonek, berekin negoziatu beharrean. Hedabide hori Zelenskyren aldeko ez izatearen susmagarri bada ere, Naftali Bennettek, garai hartako lehen ministro israeldar eta Zelenskyk eskatuta –AEBen, Frantziaren eta Alemaniaren baimenarekin– Ukrainaren eta Errusiaren arteko bitartekaritza lanetan ibiliak, 2023an esan zuen bi aldeek nahi zutela armistizioa, baina mendebaldeko herrialdeek blokeatu egin zutela. Hara EBren «bakearen diplomazia», betiere AEBen mendekoa.

Honetara ezkerro, zer ongizate eta zer balio daude EBn arriskuan? •

Aritz Pardina Herrero da Orioko Udalak bertako hitzak eta esamoldeak bildu, jaso eta hedatzeko egindako beka-deialdiaren hartzailea. Bekaren iraupena sei hilabetekoa da eta zenbatekoa, 3.000 eurokoa. Tokian tokiko hizkera dokumentatzea lan ohikoa izaten da, baina Orioko kasuak badu berritasun bat, helburu nagusia hizkera horren erabilerara bultzatzea baita.

Hain zuzen ere, «Orioko Udalak herriko hitzak eta esamoldeak bildu, jaso eta hedatu nahi ditu, belaunaldi berriek horien berri jakitea eta normaltasunez erabiltzea bultzatzeko, eta horretarako egiten du beka-deialdi hau», dio beka-deialdiak.

Lanaren egilearen gaztetasunak (1996an jaioa) eta profila ere ematen diote berezitasuna proiektuari, Aritz Pardina filosofoa baita ikasketaz –iaz "Ibai ahoak" saiakera liburua argitaratu zuen–, eta ez filologoa edo soziolinguista. Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, Pardinarekin izan gara egiten ari den lanaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko.

BILKETA, EGINDA

«Nik Filosofia gradua egin nuen, baina beti ikasten eta lanean ibili izan naiz aldi berean. EHU presentziala denez, askotan arazoak izaten nituen klaseetara joateko eta lanarekin bateragarri egiteko. Horregatik masterra UNEDen egitea erabaki nuen, linean delako eta askoz malguagoa, alde horretatik. Ikasturtean zehar musika irakasle moduan egiten dut lan Zumaian, gitarra klaseak ematen ditut han, eta udan ere saiatzen naiz beste



ORIOKO HIZKERA

Orioko hitzak eta esamoldeak bildu eta gazteen artean hedatzeko erronkari heldu dio Aritz Pardinak

 **HIZKUNTZA** / Asier Aiestaran

Udalak egindako beka-deialdi bati erantzunez, Aritz Pardina oriotarrak herriko hitzak eta esamoldeak bildu, jaso eta hedatzeko proiektuari heldu dio. Bilketa ez da berrikuntza handia, egina aurkitu du hein batean, baina hori gazteengana helaraztea erronka mardula da.

lanen bat egiten, ikasketak ordaintzeko. Horrela nobilela ikusi nuen Orioko Udalak beka-deialdi publiko bat atera zuela. Ordurako musika klaseak ematen ari nintzen eta hasieran ez nuen pauso hori egin, lan handiegia izan zitekeelakoan. Baina gero iruditu zitzaidan lan interesgarria zela eta norbaitek egin behar zuela. Esan zidaten ez zela mugimendu handirik izan bekari heltzeko eta urratsa egitea erabaki nuen», aipatu digu Aritz Pardinak beka eskatzeko erabakia nola hartu zuen galdetu diogunean.

Bekak hainbat fase proposatzen ditu. «Hiru fase direla esan liteke. Alde batetik, Udaren iturri guztiak hustu eta hor dagoena aztertzea. Ondoren diagnostiko bat egitea, ikusiz bildutako hitz eta esamolde horien artean zein tzuk izan daitezkeen erabilgarriak gazteen aldetik. Eta azkenik komunikazio fasea, sare sozialak eta egokiak iruditzen zaizkigun gainontzeko bideak erabiliz».

Lehen fasea, hitz eta esamoldeen bilketa, egina aurkitu du ikerlari oriotarrak. «Hasieran pentsatu nuen nik ibili beharko nuela jendeari elkarrizketak egiten. Alde horretatik, lasaitasun handia hartu nuen ikusi nuenean lan hori egina zegoela ordirako. Hala eta guztiz ere, konturatu naiz lan mardula dela hori dena sailkatzea. Ekainera arteko epea dut hori egiteko eta oraindik ere ez dut amaitu. Iturriak hainbat eskuizkribu izan dira, zaletasuna daukan jendea ibili izan delako horiek biltzen. Hori da Jon Sarasuaren kasua, adibidez. Herrian entzun dituen hitz eta esamoldeak koaderno batean apuntatzen joan da. Bera bertsolaria da eta berari ere ongi datorkio horrelakoak jasotzea. Ibon Gaztañazpiren eskuizkribu bat ere badaukat, Orioko hainbat hitz eta esamolde berezi aipatzen dituen hitzaldi batekoa, alegia. Udalak identifikatuta zituen horiek denak eta nik jaso egin ditut lan honetarako. Ahotsak.eus ataria ere iturri interesgarria da, oriotarrei egindako elkarrizketak dituelako. Beraz, hori dena txukundu eta zerrendatzea izan da nire lana. Alfabetikoki egitea erabaki dut, hiztegi baten moduan,

«Hasieran ez nuen pausoa egin, lan handiegia izan zitekeelakoan. Baina gero iruditu zitzaidan lan interesgarria zela eta norbaitek egin behar zuela», dio Pardinak

«Nik aitonari asko entzuten nizekin: beita egin, 'aparejua', 'kañabera'... Ezagutzen nituen, baina orain beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera izan dut», esan du oriotarrak

eta ehunka zerrendatu ditut dagoeneko, asko dira».

HIZKERA BEREZIA

Pardinak nabarmendu duenez, lehen fase horrek Orioko hizkerari buruzko beste ikuspuntu bat izateko balio izan dio. «Aurreneko aldiz kanpoko ikuspuntu bat edukitzea tokatu zait. Ni oriotarra izanda betidanik entzun izan ditut hitz horietako asko eta ez nuen berezitasun hori nabaritzen. Baina kanpotik begira jarrita esaten duzu 'hau berezia da'. 'Biñipin' behinik behin esateko, 'belakon' berehalakoan esateko... Horrelako asko. Eta gero beste asko, arrantzari lotutakoak. Nik aitonari asko entzuten nizekin: beita egin, 'aparejua', 'kañabera'... Ezagutzen nituen, baina orain beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera izan dut». Egindako bilketaren adibide deigarri batzuk aldameneko koadroan jasotzen ditugu.

Oriotarraren ustez, «badago tradizio bat arrantzatik datorrena, arraunetik datorrena, baina baserri girotik datorrena ere bai. Berezkotasun hori galdu egin da eta horren orde askotan gaztelerara edo ingelesera jotzen dugu. Hau bada nolabait egoera hori iraultzeko saiakera bat».

Eta bilketa amaitutakoan erabilera zabaltzeko faseari

ORIOKO HITZ ETA ESAMOLDE BEREZIEN ZENBAIT ADIBIDE

Abante! Itsasontzia irteteko prestakizun guztiak burutu direla adierazten duen seinalea. Hedaduraz, bestelako ibilgailuekin ere erabil daiteke.

Aldero. Ibilgailuetan eta ontzietan, alde bat gehiegi kargatu denean.

Amabirjiña > Jibia. Erriok ekarritako zakarraren artean pilatutako hezur-zatiak.

Antuxuna. Kirtendun edalontzia, katilua.

Apastero. Esajeratzen duena, ahoberoa.

Atxi. Ume jolasetan, harrapatzailea.

Bakura. Eskua. Bakurako ibili/izan: eskurako izan edo ibili; alegia, laguntzeko pronto egon.

Beita. Amua bazkatzeko erabiltzen den janaria edo janari-itxurakoa, arrainak erakartzeko erabiltzen dena. Beita in: amua bazkatu edo arrantzarako prestatu.

Elorriko dakan/k! Jai daukan/k!

Eskalapoi. Txokolo, kalotx(a).

Ganbelu. Baldar, artaburu, tentel, zentzu suabea (Jon Sarasuak bildua).

Granka. Amuaren punta.

Hamaxapo. Arroketan ikus daitekeen karramarro txiki, ilun eta zapala.

Hoxkar. Fresko. Haize hoxkarra, aurpegi hoxkarra.

Inpentzan. Zerbait inpentzan atera. Bat-batean, asko pentsatu gabe. Inpentzan atea zait esaldiya (Jon Sarasuak bildua).

Karkara. Kale estua. Nere amona karkara hortan bizi da.

Koasta > Kodasta. Itsasontziaren popa.

Kuxkumekoka ibili. Ezkutaketan ibili.

Lando. Zaldiek tiratutako gurdia.

Lapatx. Arrain txiki multzoa. Modu figuratiboan eta hedaduraz, ume piloa (Sarasua). Lapatxa dao parken.

Near-muskuilua > Negar-muskuilua. Erdi-negarra, zotinka aritzea (Sarasua).

Paola > Pagola. Anguletarako erabiltzen den argia, kriseilu modukoa.

Partilla. Itsasoan, harrapatzen zen arrain kantitatearen arabera arrantzaleen soldatari gehitzen zitzaion ordainsaria.

Pilipiñetan eman. Zango-mamietan jo, zigor moduan. Earra in du! Horri oan pilipiñetan emango diyoe earra. (Sarasua).

Txanboi. Jokoan galtzen ari denean desanimatzen, beldurtzen edo urduri jartzen den pertsona.

Txirrinta. Apeta, desioa (Sarasua).

Txopotx. Umeen txupetea.

Ukola. Egur gorria, ebanoa.


Ur mehe. Sakonera gutxiko ura.

Zapizaldi. Esekigailu.

Zikin estaliya > Zikin estalia. Zikina asko igartzen ez zaiona. Mantal hau nahiko zikin estaliya da (Sarasua).

Zopisartu. Aitzurrarekin, belarra azaletik jorratu.

Zuritasuna Ikusi. Itsasoan, arrain-banku bat atzeman.



heldu beharko dio Pardinak. Argi du sare sozialak ezinbesteko bidea izango direla horretarako, baina oraindik ez du zehaztu zein izango den metodologia. «Proiektu honen helburua edo targeta gazteak dira. Oraindik ere ez daukagu zehazki pentsatuta bigarren fasea nola landu. Hori udan erabakiko dugu. Uda garaia ez da izaten onena sare sozialetarako, eta horregatik asmoa da udan jada programatuta uztea hainbat publikazio irailetik aurrera ateratzen joateko. Asmoa gauza dinamikoak sortzea da. Gaur egun sareek aukera ematen dizute, adibidez, galdeketa egiteko. Horrez gain, niri garrantzitsua iruditzen zait bertatik bertarako dinamika ere martxan jartzea. Eskoletan edo kalean antolatu daitezke dinamika desberdinak; jolasen bitartez, adibidez.

Ez daukagu ezer erabat definituta, baina aterik itxi gabe».

Finean, komunikazio estrategia oso bat sortu nahi dute. «Udalak hasieratik garbi zuen ez zuela lan filologiko soil bat nahi, helburua ez zen liburu bat argitaratzea. Aukera hori beti dago eta nik dena prest utziko dut horretarako, baina benetako helburua zen estrategia komunikatibo bat pentsatzea. Jarraipen talde bat daukagu: Javi Zabaleta euskara teknikaria, Iñaki Iturain historialaria eta hirurok elkartzen gara eta hor hausnartzen dugu nondik jo. Bilera batzuk egin ditugu eta orain udara begira jarri beharko dugu, alde komunikatibo hori lantzen hasteko. Zeretik hasiko gara, hor ez daukagulako eredu argirik, nahiz eta begira jarriz gero beharbada zerbait aurkituko dugun».

«MUNDU AKADEMIKOAN ISOLATUTA SENTITZEN NAIZ ASKOTAN»

Ez dira asko izango 26-27 urterekin filosofiari buruzko saiakera liburu bat idatzi dutenak. Horixe egin zuen Aritz Pardinak iaz "Ibai ahoak" liburua argitaratu zuenean. Onartu digunez, proiektua oso pertsonala zen eta bera izan zen argitaratuko ziotela esan ziotenean ezustekoa –baina ezusteko oso pozgarria– hartu zuen lehena.

«Liburua idaztea oso proiektu pertsonala izan zen, une hartan lan akademikoagatik oso itota sentitzen nintzelako. Nire burua filosofian oso sartuta ikusten nuen, baina beti ikuspuntu akademikoarekin. Egoera horretatik nire burua askatzeko modu bat izan zen liburu idaztea. Iturri eta oinarri berberetatik abiatuta –kasu honetan, Nietzscheren ingurukoak–, zerbait erabat desberdina egiteko aukera izan zen; akademikoa izan beharrean, sortzailea. Ikusi nuen Balea Zuria argitaletxea saiakerak argitaratzen hasia zela eta idatzi egin nien nire ideia kontatuz», azaldu du.

«Niretzat hasieran ezusteko handia izan zen. Ez duzulako espero horrelako lan bat, horren pertsonala, interesatuko zaienik. Nik, etxean, nire buruarentzat idatzi nuen kasik; beraz, aurreneko ezustekoa, hori. Filosofiako lan bat izan da, ez da asko saldu, ez zen espero, egia esan, baina harrera izan du eta jendearen feedback-a positiboa izan da. Alde horretatik pozik nago», gaineratu du.

Eta, nolabait, parekotasunak ikusten ditu liburu hori idazteko eta Orioko hizkera lantzeko proiektuen artean. «Orioko hizkeraren beka honek ere horretarako balio izan dit, hein handi batean. Askotan ibiltzen naiz filosofia arloko lanetan, hitzak aztertzen edo kristoren testutzarrak ikertzen, eta mundu akademiko horretan isolatuta sentitzen naiz. Eta buruan beti daukazu galdera hori: 'Zer ekarpen egin diezaioket nik herriari egiten dudana lan honekin?' Egiten duzun ikerketa lan horrekin herriari ekarpen bat egiten diozula ikustea interesgarria da. Erregistroz aldatzeko ere bai».

Filosofiak hezkuntzan eta gizartearen izan behar duen lekuaz ere galdetu diogu, presentzia hori murrizteko

joerak antzematen baitira azkenaldian. «Filosofia beti izan da deserosoa. Filosofiak suposatzen du hausnartzea eta dakiguna zalantzan jartzea. Hori edozein sistemarentzat deserosoa da, gutxienez. Orain badirudi aldatzen ari garela, baina orain artean oso egituratuta zegoen hezkuntza sistema tradizional batean filosofia sartu eta ikasleei sistema hori zalantzan jartzeko gaitasuna ematea sistemarentzako kaltegarritzat jo zitekeen. Hori hezkuntzari dagokionez. Eta gero aurreiritzi sozial asko daude filosofiaren inguruan: abstraktua dela, konplikatua dela, ez duela bizitza errealekin zer ikusirik...».

Eguneroko eztabaida eta erabaki garrantzitsuetan helduleku bikainak eskaintzen dituzte filosofoek, baina hor ere ekarpen horiek gutxiesteko joera ikusten du Pardinak. «Atzo telebistako tertulia horietako bat ikusten ari nintzen, hain zuzen, gai jakin baten inguruan hausnartzen ari ziren, eta horixe pentsatu nuen, hura teorizatuta zuela filosofo batek. Askotan horrela jarduten gara, zerbaiten inguruan bueltaka, jakin gabe teoria bat dagoela horren atzean eta landuta dagoela. 'Izorratzaile' estigma hori badaukagu. Gaur egun denak dibertigarria, dinamikoak, entretenigarria izan behar duenez, filosofo bat badator esatera 'aizue, egiten ari zareten hori guztia landuta dago', hori ez da gustukoa izaten».

Aipatutakoez gain, musika da Aritz Pardinaren beste zaletasun bat. Hori bai, ogibide eta aisialdi, musikaren bi aldeak ezagutzen ditu Intza eta Ibai Marinekin jotzen duen oriotarrak. «Gustura nabil. Egia da ez daukagula kontzertu askorik, baina une honetan eskertzen dut hori. Oraintxe gutxien beharko nukeena asteburuero kontzertu bat izatea litzateke. Baina horrek ere ematen dizu liberazio hori: elkartu, entseatu, une politik pasatu, noizean behin kontzertu bat eman... Ez dut profesionalki hartzen. Musika da nire ogibidea, baina irakaslea naizen aldetik. Musika taldeena zaletasuna da batez ere, oraingoz nahiko lasai hartzen dudana».

bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

MASSAWA

ITSASO GORRIKO
PERLA ZAHARRA

RATISBONA

DANUBIO ERTZEKO
DIAMANTEA

MARINDA

MENDI BAKARTI
ETA PAREGABEA

SORGINEN IBILBIDEA

BIDEZIDOR MAGIKOETAN
BARRENA

LOFOTEN

LASAITASUN
BASATIA

Bidaiari Detroit, erori eta jaiki **Bertatik bertara** Getxophoto, jolasa ardatz nagusi, 'Play' lelopean;
Bioterra: 'Konpromiso ekologikoa'; Gereziaren Eguna; 'Pierre Loti eta Euskal Herriko agonia' erakusketa...
Elkarrizketa Maria Intxaustegi: «Konfinatuta egon beharrean, gustatzen zaiguna egiten ibili ginen: nabigatzen»



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK

Hauteskundeak berriro ere...



«Parkinsonaren epe ertaineko bilakaera kognitiboa zehaztasunez aurreikus daiteke»

Maitane Martinez Eguiluz (Bastida, 1998) da Txiotesia7 lehiaketako irabazlea. Bastida Ikastolan egin zituen lehen ikasketak eta gero Assa Ikastolako institutuan ibili zen Batxilergoa amaitu arte. Informatikaren Ingeniaritzako Gradua hautatu zuen eta lau urte eman zituen Donostian ikasten. Ondoren, fakultate berean egin zuen Konputazio Ingeniaritzaren eta Sistema Adimentsuen Masterra, KISA izenez ere ezaguna. Egun doktoretza egiten ari da ikaskuntza automatikoaren teknikak aplikatuz Parkinsonen gaixotasunaren diagnosi goiztiarra atzemateko. Tesia Aldapa Taldearekin eta ISS Biobizkaiarekin elkarlanean egiten ari da, eta irailean, Yale Unibertsitate-ra (AEBak) joango da doktoretza-egonaldia egitera.

Lehenik eta behin, zorionak! Txiotesia7 lehiaketako irabazlea zara! Zer-nolako esperientzia izan da?

Eskerrik asko! #txiotesia6 aurreko edizioan aurkeztu nintzen. Gero, sari banaketara joan nintzen, eta giro polita iruditu zitzaidan, partekatzea, eta ez lehiatzekoa. Aur-

ten, zazpigarren edizioa zela ikusi nuenean, berriz ere parte hartzera animatu nintzen.

Bururatu zitzaidan ideia ona izan zitekeela lagunekin tesiarri buruz izan nituen elkarrizketak islatzea. Aldapa Taldeko lankide bati, Olatz Arbelaitzi, kontatu nion proposamena, eta ideari itxura ematen lagundu zidan. Azkenik, izekok (euskarazko filologoa) proposamena irakurri eta tip pare bat eman zidan. Hori euskarazko testuarekin egin ohi duan zerbait da, hizkuntzaren kalitatea altua izatea gustatzen zaidalako.

Ikusi dut, ideia niri bururatu zitzaidan arren, proposamenak funtzionatzea eragin duen jende harrigarritz inguratuta nagoela.

Txiotesian hau zenioen: «Aizu, informatikaria eta parkinsonari buruz ikertzen?» Nola sortu zen aukera?

Lehen aipatu dudanez, Aldapa Taldeko kidea naiz. Taldea gradu-amaierako lanarekin ezagutu nuen, haiek eskaintzen zuten proiektuan interesa nuelako. Oso ondo moldatu ginen eta masterra egingo nuela jakin zutenean proposamen interesgarri bat egin zidaten: master-amaierako lana eta tesia.

Azken urteotan, Aldapako kideek gaixotasun neurodegeneratiboen taldearekin (ISS Bizkaia) lan egin dute. Ane Murueta-Goyenaren eta Iñigo Gabilondoren lankidetzari esker sortu zen tesian egiten ari naizen proiektua. Proiektuak bi mundu batzen ditu: informatikarena, batetik, ikaskuntza automatikoko teknikak erabiltzen ditugulako, eta medikuntzarena, bestetik, Parkinsonen gaixotasunaren datuak erabiltzen ditugulako.

Ikaskuntza automatikoko teknikak darabiltzazu parkinsona etapa goiztiarrean atzemateko. Zertan datza?

Ikaskuntza automatikoko algoritmoen abantaila nagusia da paziente askoren osasun ibilbideetatik abiatuta ereduak ikas daitezkeela, eta hori lagungarri izan daiteke medikuntzat, banakako medikua- ren esperientzia praktikotik askoz haratago doan informazioa erabiltzen baitu.

Lehenik eta behin, datuak bildu behar dira. Gure proiektuan, sintoma ez-motorren datuak erabili genituen, hala nola anormaltasun kognitiboak, apatia, depresioa, antsietatea, adierazpen psikotikoak, lo egiteko zailtasunak, usaimen-disfuntzioa eta disautonomia. Datu horiek test eta galdetegi simple batzuen bitartez biltzen dira.

Ondoren, datu horiek prozesatu behar dira. Batzuetan datuak falta dira, edo formatu desegokian bildu dira. Datuen kalitatea bermatu behar da erduei pasatu baino lehen. Azkenik, algoritmoak aukertzen dira, eta horiek entrenatu eta testatzen dira. Algoritmo bakoitzak bere berezitasunak ditu eta arazo desberdinak ebazteko berezitasun horiek hobeak edo okerragoak izan daitezke.

Entrenamendu eta test prozesua ulertzeko, adibide bat jarriko dizuet: algoritmo bat erabiltzea udare berdeak eta sagar gorriak bereizteko. Demagun udare eta sagar askoren datu hauek ditugula: kolorea, pisua eta forma. Datuen zati bat entrenatzeko erabiliko dugu, %80 adibidez, eta bestea testatzeko (gertzen den %20a). Algoritmoak entrenamenduetako datuen ereduak ikasiko ditu; adibi-

**MAITANE
MARTINEZ EGUILUZ**

**TXIOTESIA7
LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

Informatikari arabarrak Parkinsonaren diagnosi goiztiarra atzemateko ikaskuntza automatikoa ikertzen du. Mezu laburretan bikain azaldutakoa sakondu digu.

dez, sagarrak gorriak direla eta udareak, berdeak. Test-datuaren bidez, ikaskuntza zuzena den edo udareak sagar gisa sailkatzen dituen ikusiko dugu.

Bada, sagarren eta udareen datuak erabili beharrez, gaixotasunaren etapa goiztiar batean parkinsona duten pazienteen datuak erabiltzen ditugu, baita inolako gaixotasunik ez dutenenak ere (kontroleko datuak). Gure lanean, entrenatu ditugun algoritmoek %80tik gorako asmatze-tasa zuten; hau da, hamar test-datutik zortzian baino gehiagotan asmatzen dute Parkinsonen gaixotasuna duen edo ez. Algoritmo horietako batek bi testetan soilik oinarritutako arau batzuk sortzen ditu: lehenengo testa usaimen-disfuntzioarekin lotuta eta bigarrena, sistema autonomikoarekin, non sistema autonomikoaren hainbat osagai ebaluatzen diren, hala nola gastrointestina edo kardiobaskularra, besteak beste.

Zeintzuk dira eragiketak egiteko kontuan hartu dituzuen aldagaiak? Nondik eskuratu dituzue?

Orain arte datu ez-motorrekin lan egin dugu. Lehen aipatu dudanez, datu ez-motorrei buruz egiten diren testetatik eta galdetegietatik ateratzen ditugu aldagaiak. Datu horiek aukeratu genituen zenbait arrazoiengatik. Alde batetik, gero eta ebidentzia gehiagok erakutsi dute sintoma ez-motorrak gaixotasunaren garapenaren eta bizi-kalitatearen iragarle nagusiak direla. Gainera, ikerketek argi adierazi dute ezaguri ez-motor horietako batzuk adierazpen motorrak baino zenbait urte lehenago

«Lau edo bost urterako bilakaera kognitiboa iragartzen duen sistema sortu dugu. Parkinsonen gaixotasunarekin lotutako dementziak independentzian, zaintza-kargan eta hilkortasunean duen eragin handia dela-eta, gero eta interes handiagoa dago Parkinsonen gaixotasuna duten eta bilakaera kognitibo bizkorra izateko arrisku handiagoa duten pertsonak identifikatzeko, interbentzio azterlanak errazteko»



ager daitezkeela. Adierazpen motorrak dira nahigabeko dardara atsedenean, mugimendu geldoak, oreka arazoak eta zurruntasuna. Azkenik, sintoma ez-motorrak neurtzen dituzten eskala klinikoak erraz eskura daitezkeenez, datu horiek populazioaren baheketarako erabili daitezke, lehen mailako arretan proba osagarri gisa.

Bi iturritatik lortu ditugu datuak. Alde batetik, Parkinson's Progression Markers Initiative (PPMI): erreferentziatzeko azterlana da eta mundu osoko bazkideek parte hartzen dute bertan. Bestetik, gaixotasun neurodegeneratiboaren taldearen datu-basea. Bakoitzak bere abantailak ditu: lehenengo parkinsonari buruzko datu-baserik handienetakoa da, baina bigarrenekin hemengo jendearen datuak ditugu. Gainera, lehen aipatu dudan azterlanean ikusi genuen PPMIren datuek datu-base txikiagoak elikatzeko balio dutela.

Orain, garunaren erresonantzia magnetikoak erabiltzen ari gara. Horien abantaila da gaixotasunaren propietate zehatzagoak atera ditzakegula, baina beti hartu behar da kontuan informazio hori lortzeak kostu handiagoa duela. Zorionez, bi datu-baseek erresonantzia magnetikoei buruzko informazioa dute.

Ikerketak izan ditu bere emaitzak eta pazienteen eboluzioa aurreikusteko sistema garatu duzue. Zer lortu duzue?

Lau edo bost urterako bilakaera kognitiboa iragartzen duen sistema sortu dugu. Parkinsonen gaixotasunarekin lotutako dementziak independentzian, zaintza-kar-



gan eta hilkortasunean duen eragin handia dela-eta, gero eta interes handiagoa dago Parkinsonen gaixotasuna duten eta bilakaera kognitibo bizkorra izateko arrisku handiagoa duten pertsonak identifikatzeko, interbentzio azterlanak errazteko.

Lan horretan, datu ez-motorrez gain, datu motorrak ere erabili ditugu. Prozedura

antzekoa izan da: algoritmoren entrenamendua eta testa, baina kasu horretan algoritmoak pazientearen narriadura kognitiboa iragartzen du, kantitate bat.

Ikerketa horrek frogatu du Parkinsonen gaixotasunaren epe ertaineko bilakaera kognitiboa zehaztasunez aurreikus daitezkeela oinarritzko errendimendu kognitiboaren eta epe



IBILBIDEA Maitane Martinez Eguluzek Informatikaren Ingeniaritzako Gradua egin zuen Donostian eta, ondoren, fakultate berean egin zuen Konputazio Ingeniaritzaren eta Sistema Adimentsuen Masterra. Egun doktoretza egiten ari da ikaskuntza automatikoaren teknikak aplikatuz Parkinsonen gaixotasunaren diagnosi goiztiarra atzemateko. Tesia Aldapa Taldearekin eta ISS Biobizkaiarekin elkarlanean egiten ari da, eta irailean Yale Unibertsitatera (AEBak) joango da doktoretza-egonaldia egitera.

UEU

laburreko narriadura kognitiboaren bidez, erraz neur daitezkeen neurketa kliniko batzuekin batera. Oraindik ez da artikulua argitaratu; laster izatea espero dut.

Zertan lagun dezake parkinsona etapa goiztiarrean atzemateak?

Parkinsona etapa goiztiarrean eta zehatz batean atzematea

funtsezkoa da gaixotasunak eraldatzeko terapien emaitza arrakastatsuak lortzeko, gaixotasunaren progresioa moteltezeko edo geldiarazteko.

Ikerketaren zer fasetan zaude une honetan?

Tesiaren hirugarren urtea egiten ari naiz. Irailean AEBetako Yale Unibertsitatera joango naiz doktoretza-egonaldia egi-

tera. Itzultzean, tesia idazten hasiko naiz.

Garrantzitsua iruditzen zaizu zientziaren dibulgazioa euskaraz egitea?

Bai, oso garrantzitsua iruditzen zait dibulgazioa euskaraz egitea. Euskarak ere merezi du hizkuntza maila zientifiko bera edukitzea. Finean, ezagutza bat sortzen ari gara, eta hori

gure inguruan geratu ohi da normalean, gure arlokoek bakarrik irakurtzen dute. Baina txiotesia bezalako proiektuei esker, aldiz, gizarteari azaldu diezaiokegu zer ikertzen ari garen.

Zein erronka dituzu esku artean?

Orain erresonantzia magnetikoari buruzko datuak erabil-

tzen ari naiz. Horien bidez, parkinsonaren mutazio genetikoko zehatzetan garunean zer gertatzen den iker dezakegu, besteak beste. Helburua biomarkatzaileak aurkitzea da, hau da, gaixotasunaren adierazleak. Adibide bat jartzearen, hirugarren bentrikulua- ren lodierak Parkinsonen gaixotasuna daukazula adieraz lezake.



Nagore BARRENA ORUEECHEBARRIA

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Adimen artifiziala, desmitifikazioa

Askok gogoratuko duzue “The Terminator” filma. Bertan mundu apokaliptiko bat aurkezten zaigu, makinek gobernatutako mundu bat. *Skynet* deritzon adimen artifizialak Lurra suntsitu eta gizateria esklabo bihurtu du. Egun, ‘adimen artifizial’ kontzeptua komunikabideetan eta, oro har, gizartean modan dago. Eta badirudi, halaber, “The Terminator”-en aurkezten zitzaigun *Skynet*-en “antzeko” edo horretatik gertu dagoen zerbaitekin lotzeko joera dagoela (esajerazioa da, noski).

Egia da gure artean balizko kreatura berri bat dugula pentsatzeak sor dezakeen beldurra elikatzea komunikabide askorentzat irakurleak, entzuleak eta abar lortzeko bidea dela, baina hala ere, komunitate zientifikotik (konputazioaren zientziaren eremuan) bidaltzen eta elikatzen den mezuari buruzko hausnarketa egitea ere merezi du.

Horren harira, Jaron Lanier informatikaria komunitate-tik bidaltzen ari garen mezu eta kontzeptu horren aurka lanean dabil. Eta ni, artikulua apal honetatik, eginkizun horretara batuko naiz. Lanier-ek “The New Yorker” aldizkarian bi artikulua interesgarri argitaratu ditu: bata, publiko orokorrari adimen artifiziala eta hari lotutako kontzeptuak argi eta modu ulergarrian azaltzeko (“*How to Picture A.I.*”) eta bestea, adimen artifiziala bera desmitifikatzeko (“*There is no A.I.*”).

Aro teknologiko berri baten hasieran gaudela ematen du. Berria den neurrian, beldurra eta zalantzak sortzen ditu, noski. Baina **teknologia gaizki kudeatzeko modurik errazena hura gaizki interpretatzea da**. Eta gure helburua aipatutako teknologiaz modu egoki eta arduratsuan hitz egitea da, publiko orokorrarentzat dibulgatzea eta ulertteraza egitea.

Lanier-en hitzetan, «pentsa dezagun adimen artifizialean tresna gisa, ez kreatura/izaki gisa»; noski, arriskuaren aukera neurrian ezabatu gabe. Tek-

nologiaren mitifikazioak erabilera okerrera garamatza. Lanier-ek adimena ez dagoen premisarekin lan egitera gonbidatzen gaitu, teknologiaren erabilera egokia egin edo hura arautzeko.

‘Adimen artifizial’ kontzeptuaren barnean egindako aurrerapen zientifikoak ikaragarriak dira, eta jarraitzen dute izaten, ez nuke kontrako mezua zabaldu nahi inola ere. Haren erabilera egokia oso onuragarria izan daiteke. Baina ‘adimentsu’ kontzeptuaren mitologizazio horri aurre egin beharko genioke. Bide horretan zientzialariok erronka eta ardura dugu: gure eremuko zenbait ingurune espezifikotatik (enpresa teknologiko handietatik, batez ere, eta modu interesatuan) atmosfera apokaliptikoa sortzeaz gain, agian ez dugu ondo azaltzen adimen artifiziala zer den eta nola funtzionatzen duen. Onartu beharra dago, era berean, Lanier-ek seinالاتu bezala, erabiltzen den ohiko terminologia ez dela lagungarria tresna itxura –eta ez izaki itxura– irudikatzeko, ‘adimen artifizial’, ‘neurona’, ‘neurona-sare’ eta antzeko termino biologikoekin. •



Pentsa dezagun adimen artifizialean tresna gisa, ez kreatura/izaki gisa. Dragos CONDREA | GETTY IMAGES

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



BILBOKO PORTU AGINTARITZA

PORTUGALETEKO BURDIN KAIA, 1889AN

1889an egile ezezagun batek Portugaleten egindako argazkian, lehen lerroan, ontzi txikiak daude eta, haietan, gizonak eta emakumeak, hondarra kargatzen itsasbeheran. Atzealdean, Serantes mendia ikusten da eta, azpian, Santurtzi. Irudiaren erdian, Portugaleteko Burdin Kaia dago, jatorriz Nafarroako Izu herrikoa zen Evaristo Churrucak diseinatua. Churruca Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria zen, baita Bilboko Portuko Obra Batzordeko zuzendaria ere. Kaiaren eraikuntza 1881ean hasi zen, eta 1887. urte amaieran inauguratu zuten lana. Eraikuntza horri esker, nabigazio segurua egin ahal izan zen inguruan, istripuak eta hondoratzeak saihestuz. Burdinazko kaiak 800 metroko luzera dauka eta eraikitze lanetan ari zirela azken 200 metroak zementuzko hormigoizko blokeetan eraikitzea erabaki zuten, ekaitzei, itsasoaren higadurari eta ontzien inpaktuari hobeto eusteko. Irudian, barraren hasieran zegoen eta dagoeneko desagertuta dagoen Pilotu Nagusiaren Dorrea ere ikus daiteke.



Zure txangoak antolatzeko aholku baliagarriak: ibilbideak, jatetxeak, tabernak, ostatuak... Eta aisialdirako kulturgune eta jaietako proposamenak.



24
EUSKAL
HERRIKO
GIDA

ESKURA EZAZU!
EKAINAK 15+16
GARA + 3€

